



Ziberaktibismoa

Subertsio modu berrien erradiografia

Kike Diez de Ulzurrun

«UPNk euskaldunon
bizkar gainean
eraiki du bere
mendeku latza»

Musikene

Ika-mikaren ostean,
normaltasuna
helburu

Amaia Izko

abokatua
«Atxiloketa
prebentiboak gelditu
dira, ez baitzuten ia
inor kondenatzen»





Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko uztailaren 10a, 2.284. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Reyes Carrere:** «Zer egin behar dugu telebistan agertzeko, biluztu?». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Ziberaktibismoa.** 2.0 mugimenduen argilunak. MIKEL GARCIA / 5

Pertsonaia

- **Kike Diez de Ultzurrin:** «Euskararen aldeko mezuak igortzen kokatzen dut nire burua». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

- **Euskal artzainak AEBetan.** Hilketa misteriotsua Far West erara. MONIKA MADINABEITIA / 15

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Uda. UXUE APAOLAZA / 20
- **Matemagia.** IMANOL ALVAREZ / 21
- **Hiruko txikian** Aste beroa. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Elgorria eta txertoak.** FELIX ZUBIA OLASKOAGA / 22
- **Txandan** Telebistari begira. CASTILLO SUAREZ / 22
- **Zirtak** Ezer ez. PATXI ZUBIZARRETA / 23
- **Bertso berriak** Bertso berriak, #saresozial-ei @asarriegi-k jarriak. AITOR SARRIEGI GALPARSORO / 24

Erdiko kaiera

- **Musikene.** Berriz afinatuko ote da goi mailako musika eskola? ANDER PEREZ / 25
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** JON TORNER / 31
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Amaia Izko:** «Presoek normalizazio prozesuan parte hartzeko aukera itxita dute». MIKEL ASURMENDI / 37
- **Immigrazioa.** 200.000 lagun, jendartearen beharrianak asetzera etorriak. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Bea Sallaberry:** «Baionan posible da bizitzea euskararekin kontakturik izan gabe». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Uranio pobretuak hondatutako Falujako haurrak. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Beti UPNetan.** AINGERU EPALTZA / 50



“Zer egin behar dugu telebistan agertzeko, biluztu?”

Reyes Carrere | Akaba Bera Bera

“Lepoan hartu ta segi aurrera...”

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Irratian entzun berri dut: “Emakumezkoen eskubaloian...”.

Eskubaloia da, ezta? Zergatik ez dute esaten gizonezkoen eskubaloia? Zergatik eskubaloia entzutean denoi etortzen zaigu gizonezkoena? Bada garaia hiztegia limatzen hasteko!

Utzidazu kazetari guay-arena egin eta gaiari buruz galdetzen.

Emakumea naizelako beti galdera horiei erantzutera kondenatuta nago? Entrenatzailea naiz eta zergatik ez dit inork taktikaz edo estrategiaz galdetzen? 25 urte daramatzagu gauza bera esaten eta ez da ezer aldatu.

Tira, zu jokalaria izatetik entrenatzaile izatera pasa zara, ltxakokoek Champions-eko finala jokatu berri dute...

Eta ez dute zuzenean telebisatu! Nork dauka horren ardura? Non daude politikariak? Itxako Champions-eko finala jokatzen ari zen bitartean Asobal ligako partida arrunt bat eman zuten. Diskriminazio hutsa da!

Segi, segi...

Zer dago Champions-eko final baten gainetik? Zer egin behar dugu telebistan agertzeko, biluztu? Badakigu hori eginda biharko portada denak gureak liratekeela, baina ulertuko duzunez, gure lanarengatik atera nahi dugu medioetan.

Nik mutilek baino emaitza hobeak daukazuela ulertzen dut.

Bai, baina kirola egiten hasten den neskato batek zer eredu dauka? Nor bezalakoa izan

nahi du? Zein da bere ispilua? Ronaldo, Nadal, Alonso, Gasol, Lorenzo Urios, Messi... Medioentzat ikusezinak garenez, eredu guztiak gizonezkoak dira.

Ez esan Mourinhoren txolopoteekin egiten duzunik amets...

Gurea frustrantea bada, beraiena ikuskizun hutsa da, futbolaren *Aquí hay tomate*. Mouri-nhok oso lan interesgarria egiten du, baina zergatik ez dio inork horretaz galdetzen?

Orain ere kazetarien errua!

Ikuskizunaren parte direla jakiteaz gain, denek dakite zerk mugitzen duen dirua. Mourinho eta antzeko kexatiak gure aulkietan jarriko nituzke. Egin dezatela orain arteko lan eskerga erabateko indiferentzian.

Eskerrak egoarentzat entrenatzaileak partida bat irabazi dezakeen!

Ajedrezean bezala piezak mugitzen dituzu, baina pieza bizidunak dira, eta beren erabakiak hartzen dituzte. Piezak zuzen kokatuta ere eurek ematen dizute garaipena, baina piezak oker mugitzen badituzu ez dago zereginik.

Emaitzek dena estaltzen dutela esan behar nizin, baina...

Emaitza onek, talde barruko indar korronteak baretzeaz gain, egonkortasuna ematen diote klubari. Hori bai, irabaztean ez duzu dena ondo egiten, ezta galtzean dena gaizki ere. ■

Ziberaktibismoa

2.0 mugimenduen argilunak

Herrialde arabiarretako iraultzak eta haserretuen kanpaldiak izan dira azken adibide garbienetakoak. Interneten zabalkunderako gaitasuna eta Twitter eta Facebook bezalako sare sozialen bultzada aprobetxatuz, aldaketarako gogo duen jendea aktibatzea lortu dute teknologia berriek. Zibermugimenduen eraginkortasunaz iritzi guztiak ez dira baikorrak, ordea.

MIKEL GARCIA

MOLDAVIAKO HISTORIAN jazotako protestarik handiena “Twitter iraultza” izendatu zuen *The New York Times* egunkariak. Sare sozialen bidez hedatutako mezuari kasu eginez, 2009ko apirilaren 5ean 20.000 pertsona elkartu ziren hiriburuan, egun horretan bertan egindako hauteskunde ustelak salatzeko. Bozak berriz zenbatzea lortu zuten. Urtebete geroago hauteskundeetako emaitzen manipulazioagatik haserre Iranen abiatu zituzten

manifestaldiek ere Twitter-ekin zerikusia izan zutela zabaldu zuten hedabideek. Ahots kritikoek, ordea, laster hartu zuten hitza: oso erabiltzaile gutxi ditu sare sozialak Moldavian, eta berdin Iranen. Teknologia berrien eraginari garrantzia kendu nahi izan diotenek argudiatu zuten, adibidez, Iranen 10.000 erabiltzaile baino gutxiago dituela Twitter-ek eta mezu gehienak ingelesez igorri zituztela —eta ez farsi hizkuntzan—, alegia, atzeritik bidali-

Herritarren errebolten beldur, Interneten historian lehen aldiz Hosni Mubarak Egiptoko agintari zenak moztu egin zien estatu oso bateko biztanleei Interneterako sarbidea, baita SMS zerbitzua erabiltzeko aukera ere. Alternatibak bilatu zituzten egiptoarrek.



tako mezuak zirela nagusiki, eta ez herrialde-
tik bertatik idatzia.

Hilabete gutxira, mundu arabiarak ezta-
da egin zuen: Tunisiak hasitako bideari beste
hainbat herrialdek jarraitu zion, gobernub-
ruen aurkako altxamenduetan. Berriz ere,
teknologiak horretan guztian jokaturako
papera izan zen eztabaidagai, eta Sareak izan
zuen indarraren adierazgarri argienetakoa
boterean zeudenen jarrera da: Interneten his-
torian lehen aldiz, Hosni Mubarak Egiptoko
orduko agintariak moztu egin zien estatu oso
bateko biztanleei Internetarako sarbidea,
baita SMS zerbitzua erabiltzeko aukera ere.
Teknologiak matxinada mantentzeko, zabal-
tzeko eta indartzeko izan zezakeen ahalme-
naren beldurragatik baino ezin da ulertu hala-
ko jokabidea. Ahalmen horren jakitun,
alternatibak bilatu zituzten egiptotarrek: tele-
fono finkoak, faxa, irratia, Internetarako
konexiorik gabeko modemak (dial-up) edota
martxan jarraitu zuen zerbitzari bakarra
(Noor) software anonimoekin erabiltzea,
agintariak ez atzemateko.

Altxamenduak jazo ziren beste herrialde
arabiarretan ere, teknologiak bateko edo bes-
teko murrizketak jasan zituen boteretsuen
aldetik. Mugarik gabeko erreportariak elkar-
teko txosten baten arabera, iaz
62 herrialdetan sufritu zuten
Interneteko zentsura. “Tresna
hauek erabiltzen ikasi dute erre-
gimen autoritarioek, eta esku
okerretan halako tresna gehia-
go eta merkeagoak egoteak
demokrazia gutxiago ekartzen
du, ez gehiago”, dio Evgeny
Morozov blogari errusiarrak,
The Net Delusion liburuan.
Azken finean, ezin dugu ahaztu
arestian aipaturiko Irango
manifestaldien ondorioz
Gobernuak teknologia aprobe-
txatu zuela sare sozialen bidez
komunikatu ziren disidenteak zelatatu eta
kontrolatzeko. Morozoven hitzetan, “arrisku-
tsua da Interneteko askatasunaren pankarta
kolore-anitza, atzean deskubritu dezakegula-
ko Internet diskurtso demokratikoetarako
bozgorailua baino askoz gehiago dela, erabi-
lera guztiz antidemokratikoak izan ditzakeela,
eta horiek zuzendu ezean, demokrazia susta-
tzeko helburua arriskuan egon daitekeela”.
Herritarren errepresioa eta erabateko kontro-
la erraztu ditzake, esaterako.

Ildo horretatik, Sareak subertsiorako ema-
ten dituen aukerak tentuz hartu behar direla
ohartarazi du Douglas Rushkoff idazle eta *The
New York Times* egunkariko kazetari estatuba-
tuarrak: “Bai, Twitter eta Facebook bezalako

REUTERS



**“Twitter eta Facebook bezalako
zerbitzuek aktibistei inoiz ez
bezalako aukerak eskaintzen
dizkiete antolatzeke. Baina horien
menpe zenbat eta gehiago egon,
orduan eta handiagoa izango da
zerbitzu horien kontrola duten
gobernu eta erakundeekiko
morrontza”**

DOUGLAS RUSHKOFF, IDAZLE ETA KAZETARIA

zerbitzuek aktibistei inoiz ez bezalako aukerak
eskaintzen dizkiete antolatzeke. Baina zerbitzu
hauen menpe zenbat eta gehiago egon, orduan
eta handiagoa izango da zerbitzu horien kontro-
la duten erakunde eta gobernuetako morrontza.
Gustatuko litzaiguke pentsatzea
konexio deszentralizatua eta mugagabea dugu-
la denok. Baina Internet agintari nagusiek kontro-
latzen dute erabat”. Horregatik, Rushkoffek
dio aktibista digitalak hasi direla dagoeneko
ekimen berriak sustatzen, zerbitzuaren horni-
tzailleen esku ez egoteke; esaterako, Wi-Fi

bidez erabiltzaile batzuek bes-
teak konektatzen dituzte, bata
bestearen segidan. Fenomeno
berria da ziberaktibismoa, eta
oztopoen aurrean, bere bidea
egiten ari da oraindik.

**Mugimendu zapatistatik,
M11, Anonymous eta
Indymediaraino**

Komunikazioa da zibermugi-
menduen funtsa, norabide
askotako interakzioa ahalbide-
tzen duen informazio fluxua.
1994ra jo behar dugu lehenen-
go informazio gerrilla gisa eza-
gutzen dena aurkitzeko: Txipaseko mugi-
mendu zapatistak sare elektronikoa erabili
zuen, Nazio Askatasunaren Ejertzitoak
zituen helburuak ezagutzera emateko. Lortu-
tako oihartzunari esker, Mexikoko Gober-
nuaren hainbat erabakitan eragin ahal izan
zuten. Komunikatzeko gaitasuna dago,
finean, mugimendu baten arrakastaren
atzean, eta garai bakoitzeko komunikazio
aukerek (korreo sistema zentralizatua, tele-
grafoa, mass mediak...) baldintzatu –ahalbi-
detu– dute era bateko eta besteko mugimen-
duen funtzionamendua. Internetek zentrorik
gabeko komunikazioa sustatzen du, bitarte-
karitza –eta erabakiak hartzeko gidaritza
lana– egingo duen nukleorik gabea, harre-



SN/AP



GORKA LEJARGEI

Moldavian eta Iranen (ezkerreko argazkietan) hauteskundearen ostean egindako manifestaldi jendetsuetan Twitter bidezko deialdia erabakigarria izan zela diote batzuek; Twitter-ek herrialde horietan jarraitzaile gutxi dituela eta mezu gehienak ingelesez (atzeritik) idatzi zirela argudiatu dute bestetuek. Goiko eskuineko irudian, M15 mugimenduaren kanpaldia Madrilén. Eskuinean, 2004ko M11ko atentatuaren ostean PPren Madrilgo egoitza aurrean egindako protestak, manipulazio informatiboa salatzeke.

man sakabanatuetan oinarritua. Taldeak du indarra.

Hau guztia gizarte mugimenduen belaunaldi berri baten ingurumarian kokatu behar dugu. XIX. mendeko bigarren zatian, gizarte mugimenduak klase-borrokari eta Estatu-Nazioaren kontrol borrokari lotu zitzaizkien bereziki. XX. mendearen bigarren zatian ugarituko dira Gizarte Mugimendu Berriak izenarekin ere deiturikoak: giza eskubideak, arrazismoa, adierazpen askatasuna, ekologia, feminismoa, antimilitarismoa, euskara... bezalako arloak ere izango dira aldarrikapenerako motibo. Hain juxtu, gaiak hausnartu duen Manuel Castells soziologo espainiarrek dio Internet bidezko mugimenduen ezaugarria dela balore eta printzipioetan oinarritzea, ideien inguruan jendea biltzeak komunikazio gaitasun handia eskatzen duelako, eta Internet tresna aproposa da zeregin horretan. Beste bi bereizgarri ere gaineratzen dizkio Castellsék ziberaktibismoari: kanpaina eta proiektu zehatzetarako koordinazio malgua izatea, egitura zurrunezko erakunde, elkarte eta partidu tradizionalen krisiaren aurrean; eta mugimendu lokalak globalki zabaltzea. “Kontzientzia *globala* –globala eta lokala– nagusitu da eskubide eta eskaeren inguruan”, dio Eduardo A. Vizer soziologo argentinarrak. Sarean, mugimenduen diskurtsoa bi norabidetan eraiki daiteke: komunitate jakin baten beharretatik abiatuz, edo eskaera unibertsalak dituzten talde anitz eta heterogeneoak elkartuz. Paradoxikoki, komunikazio globalak ahalbidetu ditu sistema neoliberal globalizatuaren aurka sortutako nazioarteko sareak.

Kontuak kontu, askotariko mugimenduak aurki ditzakegu teknologia berrietara lotuta. Webgune bat blokatzeko, bahitzeko edo sabotatzeko xedez, mezu bidalketa masiboa eta online manifestazioak antolatzen ditu hacktismoak (motibazio politiko edo ideologikoen bultzaturiko hackerismoak). Anonymus taldeak, esaterako, mota horretako makina bat ekintza egin ditu. Besteak beste, AEBetako CIAren edota Espainiako SGAEren eta hainbat alderdi politikoren webguneak blokatu izan dituzte, eta hainbat herrialdetan taldeko kideak atxilotu dituztela eta, gobernuen nahiz banketxeen webguneak eraso soko dituztela egin dute mehatxu berriki.

Ezagun bihurtu dira Internet eta sakelako bidez deitutako elkarretaratze espontaneoak (flashmob, ziberturba, teknoturba... deiturikoak). SMSak gako izan dira hainbatetan: Seattle-n (AEB), ondoren segida izan duten elkarretaratze altermundista garrantzitsuak artikulatu zituzten 1999an, Merkataritza Mundu Erakundearen aurka; Joseph Estrada presidentea kentzeko erabakigarriak izan ziren mobilizazioak sastatu zituzten Filipinetan 2001ean; blog, e-posta eta foroak laguntzaz, segapotoetako mezu gurutzatuek 4.000 lagun bildu zituzten Madrilgo PPren egoitza aurrean, 2004ko martxoaren 11ko atentatuaren harira jasandako manipulazio informatiboa salatu asmoz.

Hainbat kolektibok Interneten oinarritzen dute euren funtzionamendu, antolaketa eta proiektua, aktibisten nodo edo elkargune gisa jotatuz. MoveOn.org guneak deituta, New Yorken inoiz izan den manifestaziorik han-

diena egin zuten 2003an: 250.000 pertsona Irakeko gerraren aurka. Nod50.org, No Border, Palestinian NGOs Network, Munduko Foro Soziala, ATTAC, Euskal Herrian bederatzi urte bete dituen Indymedia... ere, gizartea eraldatu nahi dutenen bozgorailu dira. Internet aurreko elkarteak, noski, ez dira atzean geratu eta Sarera egin dute jauzi; egun, ez dago webgunerik ez duen mugimendurik. Gainera, edozein izan daiteke ziberaktibista bloga sortuta, bideoak igoz, sare sozialetan mezuak hedatuz... diskurtsoaren oihartzuna biderkatu eta norberaren kausara jendea erakartzeko.

Azkartasuna vs. azaleko konpromisoa

Bai, oihartzuna biderkatzen dute teknologia berriek, eta —ematen zaion erabileraren araberakoa bada ere— eskema piramidal hierarkizatuarekin puskatu eta antolakuntza dinamikoa ahalbidetzen dute, kide guztien parte-hartzea bultzatuz, munduko edozein pertsonarekin lotuz. Beste hedabide batzuetan pentsaezinak liratekeen mezuak ere zabaltu daitezke Interneten, Nestlé markaren aurkako kanpainan *Kit Kat* txokolatea bailitzan orangutan baten behatza jaten duen gizonaren iragarkia edo Wikileaks-ek haizaturako informazioa kasu. Euskarri aproposa dirudi Sareak, zentsura saihestu eta bidegabekiak salatzeak.

Baina nolako militanteak lortzen ditu Internetek? Klik batekin mugimendu baten alde egitea bezain erraza baita aldarrikapenaz ahaztea. Facebook-en errauste plantaren aurka, gaixo dagoen umea laguntzea babesteko edo gasolindegia boikotatzearen alde botoia sakatu duena —anonimoki, batzuetan— zein mailatan dago kontzientziatua? Benetan prest al dago konprometitzeko eta neurri errealek hartzeko? Malcom Gladwell idazle britainiarak *The New Yorker* egunkarian kaleraturiko *Why the revolution will not be tweeted* artikularen arabera, sare sozialak ez dira gai benetako gizarte aldaketa eragiteko eta “konpromiso alferra” baino ez daukate defendatzen dituzten kausekiko. Batetik, pertsonen arteko harremanak azalekoak direlako, ez benetako loturek eraikiak; bestetik, tresnaren egitura deszentralizatua erruz aldaketak ezin direlako eraginkorrak izan: “Imajinatzen duzue Martin Luther King-ek bere iraultza planteatu izan balu

Proiektu puntual gehiegik kontrabotere sakabanatua eragin dezakete. “Sare sozialei esker adierazteko aukera handiagoa du jendeak, baina zailagoa da adierazpen horrek inpakturen bat izatea”



“Erabat espontaneoak diren mugimenduak desagertu egiten dira azkenean, eta horregatik beharrezkoa da energia alterglobalizatzaile hori guztia norabait zuzentzea. Kaleko erantzun soila ez da panazea”


Wiki bidezko eztabaida gisa?”. Erantzuna hainbat frontetik iritsi zaio: lotura ahulak lotura indartsu bihurtu daitezke, eta gainera, arduragabea litzateke azalekoa eta ahula dela argudiatuta militantzia horri uko egitea.

Interneteko informazio saturazioak ez dio hainbatetan zentzuzko eztabaidari gehiegi laguntzen, ordea. Proiektu puntual eta zehatz gehiegik kontrabotere sakabanatua eragin dezakete, fronte txiki pila batetan galduta eta *status quo*arentzat kaltegabea. “Sare sozialei esker adierazteko aukera handiagoa du jendeak, baina zailagoa da adierazpen horrek inpakturen bat izatea”, uste du Gladwellek. Horregatik, norbanakoen ahotsak koordinatuko dituzten guneak beharrezko jotzen ditu Castellsek, eragina lortzeko. Talde batzuen eta besteen artean sinergia eta babesa egotea, edota proiektu beraren baitan mugimendu ezberdinak biltzea. Horrela jaio izan dira MoveOn.org bezalako presio talde birtual handiak, adibidez.

Arriskua zein den? Bada, hain juxtu, egiazko bizitzan islarik ez duen unibertso birtual autoerreferentzialean murgiltzea, ahaztuz mundu birtualak segida behar duela errealitatean, eraginkorra izango bada. Berriz ere, konpromiso mailan dago gakoa. Facebook sare sozialean iaz sorturiko ekimen interesgarria da StopBanque: 2010eko abenduaren 7an gure aurrezkiak bankutik ateratzeko proposamena luzatzen zuen taldeak, sistema kapitalista bortitza kaltetu nahian. Atxikimendu andana lortu zituen ekimenak Interneten, batez ere elkarrikketa batean Eric Cantona futbolari ohi frantziarrak babesa eskaini zionetik. Larritu ere egin zen Bankarien Elkarte Britainiarra, kutxetatik dirua masiboki ateratzek hondamendia ekar zeza keela ohartaraziz. Kanpaina hezuramitzezakoan, ordea, arrakasta erreala ez zen birtualaren parekide izan, eta erantzun txikia izan zuen.

Beste kasu batzuetan, teknologia bidezko deialdiak gai izan dira beroaldian azkartasunez erreakzionatzeko eta elur-bola efektuari esker mobilizazio handiak pizteko. Garrantzitsua da protesta horiek modu egozian artikulatzea, zentzua galdu ez dezaten eta eragina izan aurretik desagertu ez daitezten. “Erabat espontaneoak diren mugimenduak desagertu egiten dira azkenean, eta

CIBERGOLEM



Eric Cantona futbolari ohiak (ezkerrean) Facebook-en jaiotako StopBanque mugimendua babestu zuen, jendeak bankutik aurrezkiak atera zitzaizkien. Interneten bai, baina bizitza errealean ez zuen hain erantzun handia izan ekimenak. Erdiko irudian, Julian Assange Wikileaks-eko arduraduna, webgune horretan haizaturiko Afganistango gerrako artxibo sekretuak jasotzen dituen egunkaria eskuetan. Eskuineko argazkian, Anonymous taldeko kideak. Hacktibismoa baliatu du taldeak, Sinde Legearen aurka protestatzeko.

horregatik beharrezkoa da energia alterglobalizatzaile hori guztia norabait zuzentzea. Ezin dugu pentsatzen jarraitu kaleko erantzun soila panazea denik, ezta aktibismoaren edo hacktibismoaren taktika isolatuak nahikoak direnik ere, kontrabotere edo mikrobotere erakustaldi hutsean erori gaitezkeelako, proiektu kritiko eta solidarioen kudeaketa konformistan; botere alternatiboa botere ofizialaren aurka”, idatzi du Cibergolem ezizen kolektiboak *La quinta columna digital* lanean. Alegia, militantzia berria eta protesta ekintza jendetsuak erakartzeko gauza izateaz gain, planifikazioa, helburu zehatzak edota integralak, aurrera begirako estrategiak komenigarriak direla, asmoak ezerezean gera ez daitezen.

Erdibidetik

Bi ondorio atera daitezke StopBanque ekimenetik. Batetik, zaila dirudiela benetako aldaketa lortzea inguru birtualean bakarrik eraginez, ekintzak kalera eramane gabe. Proiektu hibridoak izan daitezke bidea, mezua zabal-

tzeko, lo daudenak esnatzeko eta altxarazteko Internetek eskaintzen duen abagunea aprobetxatuz, baina dagokion lekuetan erabaki zehatzak hartuz. Bestetik, konprometitu birtuala ez da konprometitu errealearen sinonimo. Baina Sarea bera izan daiteke jendea kausa baten alde konprometituazazteko bitartekoa, elkarretaratze espontaneoak ondo pentsaturiko elkarretaratze bihurtzekoa; azken finean, zein puntutaraino da Internet azaleko militantziaren erantzule, eta zein puntutaraino da, hein batean, egungo gizartearen isla?

Gauzak ez direnez zuri ala beltz, ikuspegi ziber-utopikoa ez da errealista, baina isilarazitako eta baztertutako ahotsen bozgorailua errefusatzeko ere ez du zentzurik. Nolanahi, Malcom Gladwell idazleak argi du: garrantzitsuena ez da nola egiten dugun protesta, baizik eta zerk bultzatu gaituen horretara. ■

argia.com Erreportajearen ikus-entzunezkoa eta aipaturiko mugimendu, ekimen eta artikuluen loturak, Interneteko bertsioan ikusgai.

CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com

Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684
 e-posta: ondarre@hispavista.com www.acvmultimedia.com/ondarre

Kike Diez de Ultzurrun

«Euskararen aldeko mezuak igortzen kokatzen dut nire burua»

Kazetaria eta itzultzailea da lanbidez, eta herri kulturaren bitxikeria biltzailea, zaletasunez. Inork gutxi bezala ezagutzen du euskararen historia Nafarroan eta inork ez bezala daki hori dena gaurko jendeari jakinarazten. Parrandazalea, bazkalburuko bertsolaria, lapiko anitzeko burruntzali alaia eta hitzaren maisua, halakoa da Arturo Campionen eta euskaroen aro digitaleko oinordeko hau.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Zer toki izan du euskaltzaletasunak zuen familian?

Aitatzik ez zekien euskaraz baina ulertzen zuen zerbait. Pedro zen, Zildozkoa, Perutxena etxekoa. Sendagile homeopata eta, diote-nez, oso ospetsua bere garaian. Iruñera gatzetan bizitzera etorri zen. Aitaren ama, amona Paca, Legardakoa zen, Etxarte etxekoa. Aita 1925ean sortu zen. Berak ez zuen euskara etxean ikasi. Uste dut 13 edo 14 urterekin ikasten hasi zela etxean zuten neskame euskaldun batekin. Gainera aitaren osaba bat, Severiano, oso gazte hil zena, txistularia zen, Iruñeko euskal etxeko dantzaria eta entzierroko oso lasterkari ona. Oso mugitua eta festazalea zen eta ez dakit haren eragina jasota edo, hasi zen aita euskara ikasten. Gero soldaduskan jarraitu zuen. Arturo Campionen *Blancos y negros* eleberria irakurri zuen eta horrek arrasto sakona utzi zion. Lan horretan XIX. mendeko karlista eta liberalen gorabeherak ageri dira, ikuspegi euskaltzale batetik. Gerra ondoren, aita Oberena elkar-tearen sorreran egon zen 1940an. Horren baitan, ezpata-dantzari talde bat sortu zen eta, gerra bukatu ondoko urteetan, Nafarroan barna ibili ziren, makina bat herritan, jantziak eta makilak mando gainean eramanez, herri batzuetara iristeko errepiderik ez zegoe-lako. Han, Oberenan, nola edo hala, Iruñeko jende euskaltzalea elkartu zen.

Gerra ondoko urte ilunak.

Iruñean ez zen batere girorik. Jende euskaltzalea, Errepublikara garaiko eragileak, erabat barreiatuta edo erbestean ziren. Beste asko hilak edo sormenerako batere gogorik gabe gelditu ziren; Alexander Tapia *Nabarrerriako* idazlea edo Javier Ciga margolaria, esaterako. Gerrak sekulako etena ekarri zuen. Hautsi egin zuen euskaltzaletasuna. 40ko eta 50eko hamarkadetan ikusten zen euskara atzera zihoala etengabe. Hori ikusita, garai hartako izen handiko gizon-emakume batzuek gutun bat aurkeztu zuten Diputazioan eskatuz zerbait egin zezatela, bestela euskara laster desa-

Nortasun agiria

1962ko azaroaren 21ean Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá jaio zen Iruñean, sei anai-arrebaren artean bosgarrena. Pedro Diez de Ultzurrun Etxarte, aita, mediku ezagun eta oso maitea izan zen Nafarroan. Lan handia egin zuen euskarak eta bere kulturak urtetan galdutako prestigioa berreskuratze aldera. Harengandik jaso zuen euskaltzaletasuna eta lan egiteko grina. Kazetari lanean ibili da gazte-gaztetandik Euskalerrira Irratian, *Nafarroa Gaur* eta *Nafarkaria* gehigarrietan, *Diario de Noticiasen*, ARGIAN...





gertuko baitzen. Horri erantzuna emanez, Diputazioak 1957an Euskararen Aldeko Saila sortu zuen, eta gure aita zena izendatu zuten hango buru, 33 urte zituela. Bera ez zen funtzionarioa eta, han zebiltzan besteak bezala, lanean aritu zen deus kobratu gabe, bere borondatez. Postu horretarako izendatu zuten, eskatzen zituzten hiru baldintzak betetzen zituelako: gerran alde batean zein bestean borrokarik egin gabea izatea, apaiza ez izatea eta euskalduna izatea. Aingeru Irigaray, Jose Maria Satrustegi eta beste lagun batzuekin hasi ziren herriz herri, ez euskara irakasten, baizik eta euskal familiekin solasean euskarari buruz zeukaten ikuspegi ezkorra kentzeko eta hurrei euskara irakastera animatzeko, etxe bakoitza ikastolarik onena baitzen.

Horrekin batera, herri euskaldunetako haur guztiei euskarazko azterketak egin zitzaizkien eta ongi zekitenei saria ematen zieten: domina eta diploma eman, eta Nafarroako Kutxan sos batzuk sartzen zizkieten. Horrela abiatu ziren. Beste lan bat ere egin zuten, ez oso agerian, isilean baizik: ikastolak sortzen lagundu zuten. Era berean, bertsolari saioak antolatu zituzten. 60an Lekunberrin eta hurrengo sei edo zazpi urtetan txapelketak antolatu zituzten. Azken finala Gayarre antzokian egin zuten. Aretoa goraino betea zegoen eta Radio Popularrek zuzenean eman zuen. Euskal jaiak ere prestatu zituzten, XIX. mendearen bukaerakoei jarraipena emanez. Poliki-poliki lortu zuten nolabai-

teko giroa sortzea. Bestalde, Euskararen Aldeko Sailak *Príncipe de Viana* aldizkaria sortu zuen. Hor bildu ziren garai hartan euskaraz idazten zutenak: 30en bat lagun. Eta jende berria ere bai, gaztea, bereziki *Arnas berri* gehigarrian. Hor, adibidez, Patxi Zabaleta, Sagrario Aleman eta beste batzuk hasi ziren idazten. Hilabetekaria zen eta doan banatzen zen milaka etxetan. Eskualdeetako berriak, euskal literatura, musikagintza eta bertsolaritza inguruan idazten zuten. Horrez gain, bestelako gaiak ere jorratzen zituzten: lehen gizakia ilargian, industrializazioa, ingurumena... Oso irekia zen. Horrek 1973ra arte iraun zuen. Garai bertsuan *Diario de Navarra* argitara emaniko *Nafar izkuntza* orria hasi zen zuzentzen. Euskaltzale horiek euskararen aldeko mezua zabaltzen aritu ziren 60ko hamarkadan, 80 urte lehenago Euskara elkarteak aritu ziren bezala. Kezka handi bat zuten: haiek euskararen galera geldiarazteko izugarritzko ahaleginak egin, baina arrakasta eskasa. Ezin zen deus lortu. Nafarroako herri eta ibarretan galtzen zihoan abiada bizian. XX. mende hasieran Xulapain eta Ezkabarte euskaldunak ziren. Errepublikara garaian Ultzama, Imotz, Odieta, eta, gero, Belatez bestaldekoa. Nahigabe horrekin bizi izan gara beti gure etxean eta hori izan zen Arturo Campione izan zuen arrangura bera. Samintasunez esaten zuen batzuk badoazela baina jende berririk ez datorrela euskararen ingurura. Hori dela eta, Errepublika garaiko Iruñeko lehen ikastolako

haurrek Campioni omenaldi bat egin ziotenean, plaka bat eraman zioten Txapitela kaleko bere etxera, halaxe zioena: “Batzuk badoaz, baina besteok bagatoz”. Horrekin izugarri poztu zen.

Kezka horrekin, behartuta ikusi duzu zeure burua zerbait egitera?

Bai, jakina. Galera horri muga jartzea eta era batez edo bestez eragitea euskarak aurrera-pauso batzuk eman zitzaizkan izan da beti nire grina eta nire familiako beste batzuen. Nola? Batez ere erein, sortu eta eraikitzearen bide-tik, horretan ahailegindu gara. Han eta hemen idazten, eta euskararen aldeko mezuak modu naturalean zabaltzen aritu naiz ni bereziki.

Garai berriko Iruñeko lehen ikastolako ikaslea izan zinen.

1965ean Pozoblanco kalean abiatu zen gerra ondoko lehen ikastola, bospasei ikaslerekin. Ikasturte bukaerarako jada dozena bat ginen. Hurrengo ikasturtean 40 bat haur bildu eta San Jose plazara joan ginen. Jostaldi guztiak Redinen egiten genituen. Oraindik aritzen ziren han sokagileak sokak eskuz egiten. Hori izan zen gure eremua alde zaharrean. Gero txikia gelditu zen hura ere, Iruñea asko handitzen ari baitzen eta orduan bi tokitara joan zen ikastola: Baiona etorbideko etxabe batera eta Irrintzi Dorrera, gaur egun Euskalerria Irratia dagoen tokira. Indarra hartu zuen eta ondoren ere hainbat herritan ikastola berriak sortu ziren. Arreba gaztea ere, Itziar, ikastolara joan zen, eta egun itzulpengintzan dihardu.

Hedabideetan hamaika lan egin duzu.

Zuzenbide ikasketak egiten hasia nintzen, eta 1982ko egun batean, telefonoak jo eta hasiberria zen Telenavarra katean egiten zuten euskarazko laburpena nik eginen ote nuen galdetu zidaten. Probatzera joan eta baietz erantzun nien. Horretan ari nintzela, 84an Radio Nacionaleko emisora jarri zuten Iruñean eta orduan han ere albistegietan laburpen bat eta *Txuri ta beltz*, ordu erdiko saioa astean behin hasi nintzen egiten. Neska bat eta biok aritzen ginen. Aldi berean, han eta hemen idazten hasi nintzen, aita eta anaia Perikoren arrastoari jarraiki. Asko zor diot nik anaia Perikori, bai idatz moldean, bai itzulpengintzan. Ondoren, Euskalerria Irratian sartu nintzen, emisora emititzen hasi baino lehentxeago. Ohartu gabe, euskal kazetaritzan buru-belarri murgildua ikusi nuen neure burua. Garai hartan, bestalde, *Korroko* aldizkaria abiatu zen, Alonso, Taberna, Azkona eta beste batzuek bultzatuta. Ondoren etorri zen *Nafarroa gaur*, *Navarra Hoy* egunkariaren euskarazko gehigarria, Epaltzak zuzendua; plaza benetan garrantzitsua azalez eta mamuz 80ko hamarkadan. Garai hartako gazteentzat,

Libururik?

“Beti izan dut gogoan, ez eleberririk eta holakorik, baina bai beste arlo bateko zerbait idaztea. Kasu, ez naiz idazlea, baina astia banu, gustura Iruñea, Iruñerriko istorioak, bitxikeriak, gertaerak, pasadizoak bilduko nituzke umorearen bidetik, Euskalerria Irratirako eta *Nafarkariarako* jaso nituenak bezalakoak”.

Euskararen galera

“Guk ahaideak genituen Ultzaman eta irudia beti izaten zen haien etxeetara joan eta txoko batean euskaraz, erdi apal, erdi ezkutuan aritzen zirela ikustea, Ultzama oraindik gehienbat euskalduna zenean. Atzerakadaren pisu astun hori beti bizi izan dugu etxean”.

idazteko aukera bat izan zen eta trebatzeko parada ere bai. Hor elkarriketak eta erreportajeak egiten nituen. Han bildutakoan artean daude, adibidez, Aingeru Epaltza (Martikorena izenez sinatzen zuena), Patziku Perurena, Eduardo Gil Bera, Fermin Erbiti, Iñaki Errea, Xanti Begiristain, Asisko Urmeneta hasi zen bere zintak egiten... Nahiko talde heterodoxoa. Hura trebatzeko tokia izan zen, belaunaldi horretako eragileak asko dira eta oso lan garrantzitsua egin dute eta egiten ari dira. 1994ra arte iraun zuen, eta ondoren lekukoa *Nafarkariak*, *Egunkariaren* gehigarriak, hartu zuen. *Nafarkariaren* etena galera handia izan zen. Belaunaldi berriek ez dute trebatzeko aukerarik izan. Ez dute non idatzi izan.

Prestigioa eta ilusioa piztea ezinbestekoa da gaur egun ere?

90eko hamarkadakoak urte on samarrak izan ziren Nafarroan, aurreko guztiaren aldean. Euskararen atzerakada aspaldidanik zetorren eta hori aldatu beharra zegoen euskaldunen gogo barnean eta buruan. Uste dut hori lortu dela eta atzerakada horri muga jarri zaiola. Duela hogeitaz urte inguru, lehen aldiz aurrera-pausoak eman ziren: euskarazko irakaskuntza zabaltzeko, Euskalerria Irratia sortu zen... Irratiaren bitartez, adibidez, nik uste dut lortu zela Iruñera bizitzera etorritako jende euskaldunaren ilusioa piztea. Garai hartan ere Bai Euskarari kanpainaren baitan Sadar futbol zelaia goraino bete zen, Osasunak nekez lortzen zuena, eta horrek guztiak ekarri zuen 2000. urtean hasitako erreakzio, eraso bortitza: lege, arau eta dekretu guztiak, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren desagerpena eta abar. Eta eraso horrekin ere zerikusia izan du, jakina, ETaren indarkeria bidegabeak. ETak, adibidez, Caballero erail zuenean, eskuinak “aski” esan zuen. Haren ondorioak latzak izan dira. Nor hil zuten? UPNko agintarien artean euskara kontu arrotz gisa jotzen ez zuen bakarrenetakoa, Oberena elkarteko burua izandakoa. Harez geroztik, akabo; UPNk euskaldunon bizkar gainean eraiki du bere mendeku latza, eta, are okerragoa dena, gizartearen parte handi bat euskararen kontra jartzea lortu du, eta orain euskararen aurkako militante sutsuak dira. Horren aurrean lanean jarraitu behar dugu, burua erabilita, zentzuz, jendea gure ingurura erakarri nahian, eta ez uxatuta edo beldurra eraginda. Ildo horretan, azpimarragarria da, esate baterako, *Ze Berri?* aldizkariak egiten duen lana. Ia 70.000 ale banatzen ditu doan, euskararen aldeko mezuak igorritik. Hortxe kokatzen dut nik nire burua. Euskararen aldeko oinarri soziala zabaltzen ari da baina bestea ere bai. Kontu tamalgarria, adibidez, telebista-

PASADIZOA

Zurikaldai, zapatari diplomatua

«Iruñeko adin batetik gorako jendea hartaz gogoratuko da; gizon bizkar oker konkorduna, elbarria, Comedias kaleko loteria-saltzailea, karrikotxe batean ibiltaria. Gurpilei pedalez eragiten zien, baina ez hankekin, eskuekin baizik, pedalak bularraldearen parean baitzeuden. Hantxe ibiltzen zen Alde Zaharrean, Roch tabernatik Bar Espejo-ra.

Ongi jaio zen; baina 18 urtetan izan zuen gaitza, Gaztela-ko komentu batean fraide legoa zela; ibili ezinik gelditu zen. Iruñera itzulita, zapatak konpontzen hasi, eta bezeroen artean, toreroak izan zituen; besteak beste, Manolete hura; bai, Islero izeneko zezen lepabeltzak Linaresko zezen-plazan hil zuen huraxe bera.

Martzeliano Etxeko Juantxok eman zion goitizena, Zurikaldai, auskalo zergatik. Zurikaldai zapatari diplomatua.

1955ean-edo, Radio Requete sonatuak (egungo Iruñeko Cadena Ser-ek) ekimen bitxia antolatu zuen: boluntarioak eskatu zituen gure gizon konkorduna Iruñetik Lourdesera oinez eramateko; hau da, aulki gurpildun bat bultzatuta. Hiru boluntario agertu ziren: bata, Leringoa; bestea, Paternaingoa; hirugarrena, Etxaurikoa. Abiatzerakoan jendetza handia bildu zen, azken agurra emateko. Aulkia txandaka bultzatzen zuten errepidez errepide, mendatez mendate: Erro, Mezkiritz, Ibañeta... Zurikaldai, beti umoretsu: “Aupa, mutilok: itzultzerakoan, zuek karroan eserita, eta nik bultzatuko zaituztet”. Atzetik furgoneta bat jarraitzen zitzaien, zer gerta ere. Euria bidelagun, lau gizonak euritako handi baten azpian iritsi ziren Arnegira, propio bidaia hartarako egindakoa. Baionako egunkari batek Zurikaldairen bidaia-
ren berri eman ondoren, manexak montioka atera zitzaizkion bide bazterrera, animoak emateko, txalotzeko, konkorra ukitzeko, horrek zoriona ekarriko zielakoan. 250 kilometro egin ondoren, noizbait ere Lourdesera iritsita, kobazulo saildua bisitatu ondotik, inguruko gain batean hartu zuten atseden. Bazkalondoren, gure hiru boluntarioak erdi modorro zeudela, ustekabeen Zurikaldairen aulki gurpilduna aldapan beheiti hasi zen, gero eta abiada handiagotan. “Ama Birjina Lourdeskoa, Ama Birjina Lourdeskoa, gera nadila nagoen moduan!!” egin zuen oihu, eta, harritzko borda bat jotzera zihoanean, azken unean aulkia jiratu zen, eta gure gizona belar-meta batean sartu zen.

Nonbait, Lourdesko aldia egin ondoren, gauza izan zen zutitzea eta, nekez bada ere, oinez ibiltzeko, bai eta, omen, entzierroan laster giteko ere».

rena da. Gure hurrek ez dute erreferentziarik. Konponbide bat behar da ETB1 eta ETB3 ere hemen ikusteko. Nafar gizarteko jende euskaltzaleok gai izan beharko genuke, duela ia 30 urte euskal telebistaren seinalea Iruñeraino ekartzeko lortu genuen bezala, orain ere seinale hori ekartzeko.

Gaur egungo Sanferminak festa handiak dira, jendetsuak eta, neurri batean, munduko beste



Irudian, ezkerraldean, Zaldiko Maldiko: Antsoleaga karrikako euskal elkarteak 30 urte bete berri ditu. Iruñeko euskaldunentzat erreferente argia izan da urte hauetan eta Sanferminetan, IKArek eskutik, ezinbestekoa da hura bisitatzea. Enrike Diez de Ultzurrun Zaldikoko kide eta eragilea da duela 25 urtetik hona.

toki askotakoen antzekoak. Euskal kutsua non suma daiteke?

Sanferminak festa handiak dira, munduko festarik onenak, edo, baten batek esaten duen moduan, munduko festa bakarrak... Tira, topikokeriak alde batera utzita —eta Sanferminen aunitz dituzte, gehiegi, batzuk jasanezinak—, oso garrantzitsuak dira hiri honetarako, alde askotatik begira. Agintariak hori kontuan hartu beharko lukete, jaiak prestatzerakoan, ekitaldiak antolatzerakoan, sektore eta pentsamolde guztiak kontuan hartu, baina ez da halarik gertatzen; euskal kultura erabat baztertu dute, aspaldian ez da euskarazko plaza-talderik aditzen dantzaldietan. Hein batean, festa bahitu dute; baina zorionez, jendeak han eta hemen tarteak aurkitzen ditu bestelako gauzak egiteko.

Parrandazalea zara (hau ez da galdera). Zer osagarri behar ditu parranda on batek?

Ustekabea izaten da bat, hau da, ustekabeen egiten den huraxe; baina, niri, otordu on baten ondoko giroa; dantzatzea, karrikadantzan ibiltzea eta kantatzea; zernahi. ■

Hilketa misterioitsua Far West erara

Orain ehun urte, Euskal Herritik joandako lagun ugari bizi zen AEBetako Eagleville herrian. Surprise Valleyn dago Eagleville, Kalifornia ipar-ekialdean, Nevada estatuarekin mugan. Ondoan da Little High Rock Canyon (Nevada), ezbehar baten ondorioz ezaguna. 1911ko negu elurtetsuan, lau gizon hilda aurkitu zituzten kanoi horretan, horietako hiru euskaldunak.

Testua eta argazkia:
MONIKA MADINABEITIA

LAU GIZONEN GORPU IZOZTUAK otsailaren 10ean topatu zituzten. Hiru euskaldunak artzainak ziren, John B. Laxague, Pete Erramouspe eta Bertrand Indiano, eta laugarrena, Harry Cambron, anglosaxoia zen. Dick Morrison sendagilearen informearen arabera, lau gizonek hainbat tiro jaso zituzten eta Erramouspek bibotea errotik kenduta zuen.

Laxaguk 36 urte zituen, ezkondua zegoen eta bi ume zeuzkan; Erramouspek 45 urte zituen eta hau ere ezkondua zegoen eta bi ume zeuzkan; eta Indiano, 36 urtekoa, ezkongabea zen. Orduko egunkarien arabera, ordainsari gisa 15.000 dolar eskaini zituzten hiltzailea harrapatzen zuenarentzat; tartean, Mrs. Laxaguk jarritako 2.500 dolarrek eta Mrs. Erramouspek jarritako 2.500ak.

Hipotesi eta espekulazio ugariaren ostean, Shoshone familia indio-amerikarrak lau gizonak hil zituela ondorioztatu zen. Gizon talde bat elkartu eta Shoshone familiaren bila abiatu zen negu gorrian. Familia aurkitu eta ordu pare bateko borrokaren ondoren, familiako hamabi kideetatik zortzi akabatu zituzten: guztiak, lau ume ezik. Borrokaren bestaldean hildako bat egon zen.



Surprise Valley ondoan dagoen Little High Rock Canyon inguruan (Nevada) jazo zen 1911ko tragedia.

1911ko urtarrila bukaeratik martxora bitartean, *Reno Evening Gazette*, *Humboldt Star*, *Nevada State Journal* eta beste hainbat egunkarik askotan eskaini zioten azala gertakariari. Euskaldunei buruz, egunkariak adierazi zuten Iparraldetik etorritako hiru euskaldun zirela hildakoak: artzain lanetan aritzen zirela eta herritar onak zirela, zergak zintzo ordaintzen dituztenetakoak.

Lau lan zabalek jaso dute 1911ko gertaera: Kenneth Scott-ek 1960an idatzitako *Frozen Grass* liburua; 1968an Effie Mona Mack-ek kaleraturiko *The Indian Massacre of 1911 at Little High Rock Canyon*; 1973an Dayton O. Hyde-k argitaratutako *The Last Free Man: The True Story Behind the Massacre of Shoshone Mike and His Bando of Indians in 1911*; eta momentuz azkena, Frank Bergonen *Shoshone Mike* da, 1987an argitaratua –eta 1989an eta 1994an berrargitaratua–. Orduko egunkariez gain, hainbat eta hainbat artikulua ere idatzi dira, baina orokorrean ez dute hiru euskaldunen inguruan gauza askorik esaten.

Surprise Valleyen elkarrizketatu dugun jende gehienak *Frozen Grass* baino ez du ezagutzen.

Lehen kapituluek euskaldunen inguruan diote orduan asko joaten zirela Espainiatik AEBetara eta bai Espainia bai Frantzia aldeko euskaldunak artzain onak zirela. Scottek tragedia nola eman zen azaltzen du, artikulua eta lan gehienetan errepikatzen den bertsioa azalduz:

Shoshone familiak, negu gorri-gorrian, ganadua ikusi zuen eta berau hiltzea bururatu zitzaion, gosea asetzeko asmoz. Handik laster, Indiano ikusi zuten gerturatzeko. Hurrengo egunean Indiano eta beste hiru gizon hurreratu ziren bertara. Shoshonetarrek pentsatu zuten lau gizonak familia zigortzera zihoazela, haien ganadua hiltzeagatik. Uste horretan, tiro egin eta laurak akabatu zituzten.

'The Indian Massacre' eta 'The Last Free Man'

Macken liburuak azalpen orokor batzuk ematen ditu artzain munduaren inguruan, baina ez Scottek beste. Orokorrean euskaldunek Scotten kasuan baino presentzia gutxiago dute eta bertsio bera ematen du, hilketak azaltzeko. Aldiz, Hydek beste argumentu batzuk erabiltzen ditu: Ameriketara joandakoek landan eragindako suntsiketak azpimarratzen ditu, eta euskaldunak egiten ditu horren errudun. Bere esanetan, Mike-k (Shoshone familiako liderrak) euskal artzainak gorroto zituen, bere alabak sexualki jazarri zituztelako. Hydek cowboyen eta artzainen arteko liskarra ere aipatzen du. Ez da autore bakarra gatazka hori jasotzen duena, baina bai sakontasun handienarekin kontatzen duena. Autorearen hitzetan, cowboyek lurraldea mugatu behar izan zuten ardiak bertan ez sartzeko, baina artzainek kasurik egin ez eta Shoshonetarrek esku hartu zuten. Hara go doa Hyde, eta adierazten du familia indio-amerikarraren erantzun basati eta gordinaren ondorioa euskaldunek familiako alabekin izandako jarrera iraingarria izan zela.

Historiagileak ez dira ados jartzen cowboyen eta artzainen arteko liskarraren tamaina zehazterakoan. Gatazka egon zela frogatua dago, ez ordea Shoshone familiako emakumeak iraindu zituztenik. Hori nabarmentzen du Frank Bergon euskal-amerikar idazlearen lanak. Nahiz eta Hyde historiagilearen liburuko izenburuak (*The True Story...*) benetako bertsioa berea dela aldarrikatu, Bergonek uste du Hyde espekulazio hutsean oinarritzen dela, ez egiazko datuetan.

Bergonek aldarrikatzen du Ameriketako historiaren pasarte mingarri hau Mendebalde Zaharreko mentalitatearen herentziaren ondorio dela. Shoshone familiak pentsatu zuen ganadua hiltzearen urkatu egingo zituztela, epaiketarik gabe

Beste liburu eta artikuluetan aipatzen ez den kontu bati ere heltzen dio Bergonek: zergatik ez zegoen euskaldunik Shoshone familiaren atzetik joandako partidari? Ez zituzten euskaldunak nahi talde hartan

1977an, Richard Wayne Etulain historiagile euskal-amerikarrak esan zuen interesgarria izango litzatekeela ikustea ea euskal autore batek benetakotzat hartuko zituen –Hydek egin zuen moduan– kalean euskal artzainei buruz garai hartan esandakoak, kontuan har-

turik zein zen kontzientzia etnikoa 1960 eta 1970eko hamarkadetan. Gu geu ere kontu hau argitzeko asmoz Hydekin kontaktuan jartzen saiatu ginen orain urtebete. Hasiera batean erantzuteko prest agertu zen arren, galderak bidali genizkionetik ez dugu bere berririk izan.

Mendebalde Zaharreko mentalitatea

Hamar urtetako ikerketa burutu ondoren idatzi zuen Frank Bergonek bere nobela eta bertan eskaintzen da euskaldunen inguruko erretratu osatuena. Nahiz eta cowboyen eta artzainen arteko liskarra aipatu, Scott eta Mackek aurkezten duten bertsioaren alde egiten du autoreak. Bergonek aldarrikatzen du Ameriketako historiaren pasarte mingarri eta tamalgarri hau Mendebalde Zaharreko mentalitatearen herentziaren ondorio dela. Hegazkin eta automobil garaian, oraindik *Old West*eko pentsamoldea bizirik zirauela gizartean eta horrexegatik Shoshone familiak pentsatu zuela ganadua hiltzearen urkatu egingo zituztela, epaiketarik gabe, indioak zirelako.

Bergonen eleberrian, ahotsa ematen zaie pertsonaiei, Jean Erramousperi, esaterako. Jean fikzioko pertsonaia da, Pete Erramouspe artzainaren semea. Bere bitartez, Bergonek Far Westeko euskal komunitatearen inguruko hainbat gai jorratzen ditu: hala nola, euskaldunen identitatea, euskal artzainek Mendebaldean izandako esperientzia gogorra eta integrazio eta asimilazio arazoak. Finean, euskaldunek bertan bizitako errealitate gordinaren berri jasotzen du, argazki erromantikotik ihes egin ez.

Beste liburu eta artikuluetan aipatzen ez den kontu bati ere heltzen dio Bergonek: zergatik ez zegoen euskaldunik Shoshone familiaren atzetik joandako partidari? George Laxaguek (hildako Laxagueren seme nagusiak) esandakotik abiatuta, Bergonen liburuan adierazten da ez zituztela euskaldunak nahi talde hartan. Fikzioko beste pertsonaia euskaldun baten ahotsean argi uzten da: partida osatu zen hildakoen artean anglosaxoi



Ezkerreko irudian, Laxague familiaren erretratua. Eskuinekoan, Frank Bergon, 1911ko hilketaren berri ematen duen *Shoshone Mike* (1987) liburuaren egilea. Bertan, euskaldunen identitatea, artzainek Mendebaldean izan zuten esperientzia gogorra, integratzeko zituzten arazoak eta beste ere jorratzen ditu.



ZALDI ERO

bat zegoelako, ez gainerakoengatik. Mrs. Laxaguek ondoren izandako alabetako bat (Harrington) ez dago ados Bergonek dioenarekin. Haren ustez, ez zen euskaldunenganako diskriminaziorik egon. Halere, azaldu du, bere amak kontatuta, euskal familiek partida horren gastu guztiak ordaindu behar izan zituztela eta ordain-sari gisa ordaindu behar izan zutena baino askoz altuagoa izan zela tabernako kontua.

Joxe Mallea-Olaetxe eta Nancy Zubiry euskal-amerikarrek ere aipatu dute 1911n jazotakoa beraien idatzietan; berdin Asun Garikanok, *Far Westeko Euskal Herrian*. Nahiz eta autore hauek labur jaso duten gertaera, euskaldunengan jarri dute arreta. Adibidez, Mallea-Olaetxek, tragediak harrapatutako hiru euskaldunei buruzko informazio zehatza ematen du (ARGIA, 1.337 zenbakia). Beste hainbat arrazoiren artean, argudiatzen du partidan parte hartu zutenek diru-gosea zutela eta euskaldunak baztertu egin zituztela, etorkinak izateagatik.

Partidan parte hartu zutenen bidez, hildakoen sendien bitartez eta Surprise Valleyko lagunei esker jaso da gertatutakoa, baina kontatzen dena ez da beti historia bera. Ez dugu inoiz egia jakingo. Halaber, ez dakigu indioek ala cowboyek hil zituzten lau gizonak. Indioak baino, cowboyak izan zirela baitiote

batzuek, horien artean Nevadako Phillip Earl historiagileak. Bergonek uste du indioak izan zirela, baina azken hamarkadetan indioez sortu den irudi erromantikoak galarazten digula indioak halako gauzak egiten irudikatzeari. Hala, Bergonek dio cowboyak izan zirela argudiatzen dutenek indioak izan zirela defendatuko luketela 1911n. Alegia, sasoi bakoitzak gizartearen ikusmoldean eta pentsaeran eragiten duela.

Honek guztiak Far Westeko film baten argumentua dirudi, eta horrexegatik, jazoera pelikula bihurtzeko gogoia ere agertu zuen hainbatek. Gidoiaren zirriborroa ere idatzi zuten, Bergonen eleberrian oinarritua, baina *Geronimo* pelikulak –izen bereko indioari buruzkoa– arrakastarik izan ez zuela ikusita, aukera baztertu zuten. Pantaila handira eramane gabe ere, ehun urte geroago Surprise Valleyn gazteek eta zaharrek ezagutzen dute tragedia. Euskaldunok honen berri izatea ere ondo dago, euskal diasporak garai batean bizitu zuenaren eta haienganako aurreiritzien adierazgarri. ■



HOTELA IRIARTE JAUREGIA ****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com

CAMINOS


3D estrategia jolasa



Noruntz eta nola iritsi?

Zein da bidea?

Taularen bi alde lotzeko bidea egiten asmatu beharko duzu kolore bereko eta forma desberdineko piezekin. Horretarako zure aurkariak bidean jartzen dizkizun oztopoak gainditu beharko dituzu.



29€

ARGIAREN
HARPIDEDUNENTZAT
24€

Ludi**toys**

ESKAERAK: ☎ 943 36 86 61 | info@luditoys.com

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



TTAKUN (H)ERRENKA

Uda

Uda harro hasi da, gehiegi estutuz agian, baina denak beroa dela eta kexaka ari direnean, ez dut gutziz sinesten; metroan izerdi patsetan ere —edo batez ere—, begiradak irrist egiten du goizeko sei eta erdietan ere keinu arinez luzitzen dugun arroparen ezintasunetan zehar, eta aurtun gutxi —bat ere ez— ibiliko ditudalako agian, ordu txikitan txosnatan ehun pisutsurik gabe, dantzan, eta dantza mugimenduagatik sortzen den brisara epelaren mira sentitzen dut.

Beñat, zure proposamena nire eszenan nahiko antiktikmatikoa suertatzen da: Alaitz eta Maider? Saiatu naiz ulertzen zergatik jarri nahi dizkiezun halako oztupoak nerabeen hormonazko pasioei, eta, esatera noanak min handia egiten dit: *nire garaiaz* gogoratzen saiatu naiz (udan, pena da beti nerabeago ez izatea), ea Alaitz eta Maiderrekin izandako ligeren bat konta nezakeen edo. Eta bale, onartu beharko nuke, *Txanogorritxurena* entzungo banu adibidez, niri ere irribarretxo tontoren bat irtengo zitzaidala beharbada. Baina, bat edozer onartzeko prest dago kontua biografia baten puncha salbatzea denean. Eta uste dut, nire sedukzio gaitasun lehendik mugatuek arrakasta aukera handiagoa luketela Shakirarekin, Alaitz eta Maiderrekin saltoka baino, saltoka baino.

Udalekuetara dagoeneko haur moduan ez, sukaldera joaten nintzenean (honek kontatzen du erasmus bezala?), Ken Zazpi zen neskatoen artean Bisbali konpetentzia egiten zion bakarra, letrak filosofikoak baziren, Bisbalenen neurritira zirela agian, (agian). Gaia aldatuz, edo ez hainbeste, nor litza-teke iraindua baieztapen/konparaketa horretan, Ken Zazpi edo Bisbal?

DANI BLANCO



Uxue Apaolaza



Padrón



Sarasola

Naturaltasunez hartzen dugu gure famatuen inguruan, hala balira bezala hitz egitea? Izan daiteke euskal artista bat artista arina, komertziala eta halakotzat onartua? Espektakuluak sortzen duen produktu bat gehiago bezala? Edo Juanjo Olasagarrek *Deian* seinalatzen zuen eran, guztiari sinbolo kategoria ematen diogu? Eta sinboloz gehiegi hornitzen denari elizak erakutsi du behin baino gehiagotan umorea nola ozpintzen zaion. Gogoan dut Xabier Larrañagaren zutabe bat, Xabier Lete hil zenekoa, zeinetan figuraren inguruko eraikuntza sinboliko faltsua seinalatzen zuen, eta hargatik jaso zituen isekak, Beñat, zuk ezker abertzalea (ezker abertzaleko zenbait, oso gutxi, bat edo bi) kritikatzegatik jasoak, laztanaren mailan uzten dituzte. Eta hain gauza sinbolikoek ez dute balio txosnan alberdanian ibiltzeko.

Ramon Saizarbitoriori Arantxa Iturbek eginiko elkarrizketan (zorionak) komentatzen zuen idazleak, iruditzen zitzaiola beharbada Euskal Herrian *Telecincok* izaten duen audientzia nabarmen altuen azalpena izan litekeela telezabor propiorik ez izatea (ez dut gustuko telezabor hitza, zehaztasuna falta zaio, Piquerasen informatiboak adibidez ez baitakit seinalatzen dituen). Eta txutxumutxuz harago, euskal guztiaren balio gorenak uzten digu pertsonaiaren proiektzio publikoa eta beraren kausak publikoki aztertzen? Ez dugu behar dagoeneko, gure “gizartea eta jendea” sailen bat, saraoetako sekretutxoak —trapu zikinak, arrosak eta beltzak— kontatzeko? Orain udan gainera, poesia egunak eta txosna dantzak hainbeste konfunditzen gaituzten honetan. ■

Beñat, zure proposamena nire eszenan
nahiko antiktikmatikoa suertatzen da:
Alaitz eta Maider? Saiatu naiz
ulertzen zergatik jarri nahi dizkiezun
halako oztupoak nerabeen
hormonazko pasioei

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Matemagia



ndo ezagutzen dudan gay-les mugimenduan, bi hamarkadatan EHGAM izan zen ia antolakunde bakarra Euskal Herri osoan. Honek liskarrak eragiten zituen taldearen baitan, borroka ulertzeko modu diferentek zeudelako. Bazirudien ona izango zela hainbat elkarte egotea, zeinak bere lan-eremu eta ereduarekin. Egun askotarikoak eta kontaezinak dira esparru horretan mugitzen diren taldeak (agian asko izateagatik baino, etengabe sortu eta desagertu egiten direlako, baina tira). Halere, lehen baino eraginkorragoak al gara? Nik neuk, behintzat, zalantzak ditut. Aniztasuna, duda barik, onuragarria izaten da, beti ere elkarrengandik ikasteko balio badu; elkarren errespetuan aritzen bagara, eta abar. *Lgbtq...* letrazopa amaiezinak adierazi nahi duen alorra gizarteko beste edozein bezain anitza da, eta errealtate horrek isla izateak berak ona izan behar luke. Esperientziak erakutsi digu, oster, faktore asko hartu behar direla kontuan; biderkatze hutsak ez duela bermatzen berez arrakasta. Batze hutsak bermatzen ez duen bezala. Bestelako esparru bati erreparatuz gero ere, politikarenari hain zuzen, antzera gertatuko zaigu. Euskal alderdi andana ezagutu dugu euskaldunok., eta askotxotan ikusi dugu nola bi alderdik koalizioa



IÑIGO AZKONA

osaturik banaka aurkeztu balira baino emaitza txarragoak lortu dituzten. Ustez batuketa zena, nolabait kenketa bihurtu.

Matematikaren arabera, bat gehi bat bi ei dira; baina, ikusi dugunez, batzuetan ez da horrela izaten, are gutxiago politologian edota soziologian. Azken hauteskundeak ere erakusgarri: ustez batuketa zena biderketa bilakatu da.

Ikus-entzuleak magia gertatu delako irudipena izan dezan, kalkulua eta estatistika erabiliz egiten diren truku-bildumari esaten zaio matemagia. Matemagia izan al da, beraz? Ez. Hemen *trukurik* ez. Edozein soziologok edo politologok interpretatzen jakin beharko lukeen bezala, herriaren parte gero eta handiago batek *Aski da!* oihukatzeke zeukan gogoaren adierazle baino ez da izan hauteskundeon emaitza; Madrilgo botere guztiek –hemengo askoren ezinbesteko laguntzarekin– historikoki –batez ere azken hamarkadan– burutu dituzten hamaika

bidegabekeriaren aurrean aldarri; giza-eskubide oinarrikoen egingindako erasoaren aurrean garrasi.

Beno, bai, baten batek matemagia (eta baita askoz maltzurragoak diren bestelako *truquak* ere) erabili, erabili duela aitortu behar Gasteizko gobernura iristeko, populazioaren babes ñimiño batekin. Baina hori beste gai bat da. ■

Edozein soziologok edo politologok interpretatzen jakin beharko lukeen bezala, herriaren parte gero eta handiago batek *Aski da!* oihukatzeke zeukan gogoaren adierazle baino ez da izan hauteskundeon emaitza

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



bizi duguna hedabideak su. Bateragunea da erdaldun kalakari emanek beren hiztegi biraozalean integratu duten hitza. Zentzu bakarreko erabilpenez gorri azpimarratu dutena, itzulbiderik izan ez dezan amorraren kutxan sartu eta elektrikaz soldeatuz itxita mantendu nahi izango dutena. Ez dute lan erraza aditu ustekoek oro ETA dela preserbatibo zulatuz iritzi publikoa eratu nahi dutelarik. Auzitegi Nazionalako edozein kronikak, gezurrezkoenak ere, justu akusazioaren eskizofreniaren berri ematen du nahi gabe, errealtatea eta epaitu eta kontatu nahi

Aste beroa

luketena ez dutela antzik garbi azaleratuz, hor akusatuek ETA baztertzea zutela beren estrategiaren oinarri ezin baitute estali, eta itxuraz, orain arte inork lortu izan ez zuena lortu ere lortu dutela. Nik, entrenatzaile kaskarraren antza hartzen diet hauei, dituenak baino ez dituen jokalaririk izan bitartean maite dituenen, inoiz bereekin konforme ez dagoena. Argi da terrorista behar gaituztela, eraso inbaditzailea justiziaz eta demokraziaz janzteko motiboak behar dituzte eta etengabeko bonbardeo mediatikoan ari dira. Muntatu industria behar dute elikatu, eta ETArak gabe bezerorik ez. Gezurra Getarin eta atarin. ■

Felix Zubia Olaskoaga

MEDIKUA

Elgorria eta txertoak

Elgorri kasuen agerraldi nabarmena bizi izan dugu gure inguruan azken asteotan. Gipuzkoan, adibidez, 21 kasu izan dira, denak ere haurrak edo 35 urte baino gutxiagoko gazteak. Haietatik bik ospitaleratzea behar izan dute penumonia larriengatik, azkenean ondo sendatu badira ere.

Espainiako Estatuan 1.300 kasu izan dira 2011n; eta Frantziako Estatuan berriz, 5.000tik gora, 300 pneumonia larriekin eta sei hildakorekin. 2004an berriz bi kasu soilik izan ziren, eta Osasunerako Munduko Erakundeak 2000. urterako desagertzea aurreikusten zuen. Zer gertatu da bat bateko agerraldi hau izateko, eta joera aldatzeko?

Agerpen berri hau txertakete-kin lotua dago. Gipuzkoan, esaterako 21 gaixotatik hamazortzi txertatu gabeak ziren, eta antzerako datuak ditugu beste herrialdetan ere. Diotenez, gurasoen %5ak ez du haurrak txertatzerik nahi, hauek lekarketen balizko ondorioengatik, eta geroz eta zabalagoa da txertatu gabekoen kopurua.



DANI BLANCO

Txertaketa, norbanakoaren erabakia izateaz gain, gizarte erabakia ere bada, “artalde efektua” mekanismoa erabiltzen duelako. Elgorria bezain kutsakorrek diren gaitzetan, inguruko haurrak txertatuak badaude, birusak ez du zabaltzerik, eta hor galtzen da. Baina haurren portzentaje bat txertatu gabe badago, birusa bertan mantentzen da, eta gaitz

nontzeko haurrak –eta gaitza pasa gabeko helduak ere– arriskuan jartzen ditu. Haur bat txertatzeak, beraz, ingurukoak babes-ten ditu (baita txertatu gabea ere), eta ez txertatzeak berriz, beste guztiak ere arriskuan jartzen ditu. Galde iezaiozue 70 urtetik gorakoei, amonei bereziki, elgorriari buruz. Zerbait bizi ez izanak kontzientzia arintzen omen du.

Asko hitz egin da txertoen arriskuei buruz, baina oraindik ez da frogatu eragin txarrik dutenik. Autismoarekin lotzen zituen lan zientifikoa gezurrezkoa dela ikusi da, eta gaur egun, merkurioa erabat ezabatu da txertoetatik. Eztabaida luzeagoa

emango lukeen arren, txerta itzazue faborez zuen haurrak, beraien onagatik, eta inguruko onagatik ere bai. ■

« Asko hitz egin da txertoen arriskuei buruz, baina oraindik ez da frogatu eragin txarrik dutenik. Autismoarekin lotzen zituen lan zientifikoa gezurrezkoa dela ikusi da, eta gaur egun, merkurioa erabat ezabatu da txertoetatik »

TXANDAN

Castillo Suarez

Telebistari begira



Ez galdetu zergatik, baina telebistari begira pasatu ditut azkeneko egunak. Lehendabizi *Supernanny*: eguna garrasika eta oihuka pasatzen duen haur bat da protagonista, gurasoak lur jota uzten dituen. Ondoren, *Hermano mayor*: lanik eta fundameturik batere ez duen gazte bat, nahi duena lortzen ez duenean amari oldartzen zaiona. Ama noski, ikaratura bizi da semeak aurrean dituen gauza guztiak suntsitu egiten dituelako. Gutxiagoarengatik bidaltzen dituzte batzuek kartzelara. Gero *Supervivientes*: ikaragarriko kalapita esterilla baten kontura; mutil batek neska bat arrastaka darama; partaideak ikaratura

daude mutilak erabiltzen duen indarkeriarekin, ahozkoa ere bai. Handik gutxira bota egin dute programatik. Bukatzeko, *Salvame*: partaide baten aitari estalitako kamara baten bidez grabazioa egin diote alabarengatik gaizki esaka; irudiak ematen dituzten bitartean alaba negar eta negar. Esango nuke batzuek poztu egiten direla lan-kidearen sufrimendua ikusita.

Nazka eginda baina, aldi berean, kontzientzia lasai bueltatu naiz nire betiko zereginetara, ontasuna aldarrikatzeko ikaragarriko gogoarekin. Baina ez dakit inozotzat hartuko ote nauten; ona izatea edo, behintzat, saiatzea ez dago modan; ez du audientziarik. ■

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

Ezer ez

A

limaleko beroa egiten du. Larria izan behar du, nik hori esateko. Neure larruzalean harrapatu antzean. Munduaren metafora ote, klimatologia hau? Nora joan ihesi? “Islandian atiko bat erosi, eta erdi erretiratu?”, poetak esan zuen gisara. Aurreko batean, lagun batekin hizketan, “Bakean utziko ote naute behingoz, dedikatu nahi dudana horretara dedikatu ahal izateko”. Harridura imintzioa haren aurpegian eta, laster, galdera. Arrazoi zuen. Nolatan, ni bakean utzi? Nork, baina? Nortzuek? Galdera bikainak. Ez dakit. Pertsegitua sentitzen naiz minutuaren bila noala. Minutu madarikatua, bai, niri iheska. Denbora guztian, gero: zu norabide batean, eta bestean mundua. Beti, zentzu guztietan. Ez dago zer eginik. Amets zahar bat, eta badira zenbait hamarkada: etxalde handi bat, edo *villa* nahiz gaztelu bat inon-ez-aren erdian. Ingurumarian lurrak kilometroka eta kilometroka (autobideetarako desjabetzeak eta gainerakoak kontuan hartu behar). Inoiz irten gabe. Ez telebistarik, ez egunkaririk, ez irratarik, ezer ez. Maiordomo bat? Agian... Azken batean, erosketak norbaitek egin behar. Ez da gertatuko. Eta denbora azkenetan da. Gau hau Apokalipsiaren (simila? A B da edo A Bren antzekoa da? Urrezko kirruak. Tarantula baten modutsuko esku bat) metafora gisara: suhiltzaileen sirenak bost minutuero, polizia, anbulantziak, derrapaka dabiltzan autoak. Eta beroa. Beroa. Beroa.

Izkiriaturik aurkitu dudane testu hau Roger Wolferena da, izan, eta *La máquina del tiempo* liburu-diskoan irakur daiteke, eta poetaren ahots lakarrean entzun Joserra Senperenaren musikarekin. Bai, Islandiara joan, esate batera, eta Tomas Espedal-en *Caminar (o el arte de vivir una vida salvaje y poética)* liburuan irakur-




DANI BLANCO

tzen dudana bezala, egon, Islandian edo edonon... “Etxean luzaroan lasai arraio gertzearen poztasuna, etxean giltzapetua, giltza sarrailan, argia erdizka piztua eta idazmahaiaren eta lanpararen alboan eserita, idaztearen edo ez idaztearen poztasuna”.

Abdela Taia ere badatorkit gogora (oraintsu argitaratu da *Erregearen eguna* itzulpena), eta haren esana: Parisen bizi

Abdela Taia datorkit gogora, eta haren esana:

Parisen bizi den idazle marokoarrak, batzuetan, etxean bakartu, telefonoa deskonektatu, eta zenbait egunetan irten gabe egoteko gogoa izaten du, antza; eta halakoetan ez da dutxatzen, halakoetan bere gorputzaren usainaz, benetakoaz, kolonia, lurrin edo gainerako hatsik gabeaz jabetu nahi izaten du



irudia:

Antton Olariaga

den idazle marokoarrak, batzuetan, etxean bakartu, telefonoa deskonektatu, eta zenbait egunetan irten gabe egoteko gogoa izaten du, antza; eta halakoetan ez da dutxatzen, halakoetan bere gorputzaren usainaz, benetakoaz, kolonia, lurrin edo gainerako hatsik gabeaz jabetu nahi izaten du... Bai, etxean geratu, ahalik eta freskurarik handienez, eta parte sentitu Espedal berak antolatu nahi zuen *Geldotasunaren Alderdian*, edota Manu Leguinechek *El Club de los faltos de cariño* hartan...

Bai liburu hau bai aurrekoak izkiriaturik aurkitu ditudan ene liburuak dira, eta dagoeneko alimaleko beroa iragartzen digun uda honetarako primerako itzalgu-neak. Baina ni, orain, Kafkak noizbait bere egunerokoan idatzi ohi zuenaz oroitu naiz: Gaur, ezer ez. ■

BERTSO BERRIAK

Aitor Sarriegi Galparsoro

Bertso berriak, #saresozial-ei @asarriegi-k jarriak



DANI BLANCO

I

Konta dezadan zenbait bertsotan
azken urteon laburpen
bezala edo sare sozialek
nola eragin diguten,
gure bizitza retransmititzen
Twitterren eta Facebooken,
batzuk ia-ia kontatzen dute
pixa noiz egiten duten.

II

Norekin gauden non eta zertan,
noiz goazen oporretan,
norekin gauden maiteminduta
eta norekin zorretan,
hau “Atsegin dut” eta klikatu
horko bideo horretan...
bizi erdia pasatzen dugu
gure “Horma”ren obretan.

III

Han dago gure iruzkin sorta
eta argazki andana,
haserraldiak, pozak, tristurak...
bakoitzeko mezu bana.
Gure etxea ireki dugu
mundu osoarengana
ta irtetea atea giltzaz
ixteko hartzen dugu lana.

IV

Askatasunen defendatzaile
nola ez gara izango gu!
Baina urratu nahi direnean
badaude hamaika modu.
Geuk zuzenean jarri gabea
beste batek jarriko du...
Lehen poliziak galdetzen zigun,
gaur guk kontatzen diogu.

V

Gure mundutxo birtualean
ez dugu ikusten gaitzik,
ez da gainera hori den bezain
harreman-sare errazik.
Ez dut esaten ez ibiltzeko
sare sozialetan kasik,
zer eta nola idazten dugun
kontuan hartzeko baizik.

VI

Sorta txiki hau bukatu nahi dut
mezu txiki bat bidaliz,
ez dagoela zertan itsutu
aldatu arren gizaldiz.
Uste baduzu esageratu
dudala ta alde handiz,
sartu Google-en zure izena
eta pentsatu bi aldiz.

DOINUA: Andre txarren bentajak.



Bidali zure sortak **bertsoak@argia.com** helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Musikene

Berriz afinatuko ote da goi mailako musika eskola?

Carmen Rodriguez Suso koordinatzaile nagusiaren dimisioak amaiera eman diezaioke Musikenek azken bi urteetan bizi izandako egoera aztoratuari. Goi mailako musika eskolaren kudeaketarako eratutako bi batzordeek izango dute orain Musikenera normaltasuna eramateko ardura, eta batez ere, musika hezkuntzari kalitatea itzultzeko erronka.

ANDER PEREZ



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

UZTAILEKO LEHENBIZIKO ASTEAN bukatuko da ofizialki ikasturtea Musikenen, baina ez edonola. Badira egunak ikasleak klasera ez doazela, zentroaren kudeaketa salatzeko greban. Carmen Rodriguez Susok gidatutako zuzendaritza taldearen jarreraren kontra azken bi urteetan piztutako mobilizazio eta protestetan azkena izan da iragan maiatzaren 19an hasitako greba. Helburua argia zen,

Donostiako Bulebarrean kontzertuak eskaini zituzten Musikeneko ikasleek, besteak beste, zentroak bizi zuen egoera salatzeko.

Musikene normaltasun egoerara itzultzea, eta horretarako, ezinbestean, Rodriguez Susok kargua uztea. Iragan ekainaren 15ean eman zuen dimisioa koordinatzaile nagusiak. Hori izan zen “konponbiderako lehenbiziko pausoa”, Musika Hizkuntza eta Hezkuntzaren Pedagogiako ikasle den Beñat Rallaren ustez.

2009ko urrian izendatu zuten Rodriguez Suso Musikeneko koordinatzaile nagusi,



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

eskolako patronatuko presidentek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Isabel Celaak, hala proposatuta. Kargura iritsi eta hilabetera egindako adierazpenetan, “metro koadroko horrenbeste irakasle eta kudeatzailer on izatea Musikeneren harrotasunerako arrazoi nagusietako bat” zela nabarmendu zuen Rodriguez Susok.

Hitzok, ordea, ez zetozen bat errealitatearekin. Izendatu eta gutxira Musikeneko araudi organikoa bertan behera utzi eta zentroko zuzendari artistikoa eta zuzendari kudeatzailea kaleratu zituen Rodriguez Susok, haien izenak ordezkorik aurreikusi gabe. Orduan jakin zen eskolako hainbat kargu eta sailburu dimisioa eman zutela ere, politika berriarekin haserre. Politika horrek Musikenerako aldaketa sakonak aurreikusten zituen, Susoren aurretik egondako zuzendaritza taldeak musika eskola egoera “jasanezinera” eraman zuela argudiatuz eta murrizketa ekonomikoak ezinbestekoak zirela azpimarratuz. Zentzu horretan, eta eman berriak ziren kaleratzeak zirela eta, “egoerak larritasunez hartu beharreko zenbait neurri exijitzen” zituela adierazi zuen Pedro Luis Ariasek, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerkuntzako sailburuordeak.

Irakasleen, eta batez ere, ikasleriaren artean sortzen hasiak ziren ahots kritikoak areagotu besterik ez zituzten egin zuzendaritzaren neurri berriek. 2010eko otsailean, Musikeneko Ikasleriaren Eskubide eta Betebeharren Araudia sinarazi zitzaizkien zentroko ikasleei. Bost orritako agiriaren puntu batek erakarri zuen arreta, eta protestak eragin. Araudiaren arabera, zuzendaritzak hutsegite oso larritzat jotzen zuen, eta hortaz, ikaslearen kaleratzea eragin zezaketen “kanpora begira Musikeneren izen ona eta irudia kaltetzen duten jarrerak”. Neurri horrekin, jada errezeloa sortzen hasia zen politikaren kontrako ahots kritikoak estaltzen zituen praktikan Rodriguez Susoren taldeak. Hain zuzen

Kritikei erantzuteko prentsaren aurrera aterata zen Rodriguez Suso maiatzean. Parean izan zituen ikasleak eta ez ziren lasaitu azalpenekin. Ekainaren 15ean dimititu zuen azkenik Musikeneko koordinatzaileak.

Izendatu eta gutxira Musikeneko araudi organikoa bertan behera utzi eta zentroko zuzendari artistikoa eta zuzendari kudeatzailea kaleratu zituen Rodriguez Susok

ere, garai hartan kaleratu zuten Musikeneko hainbat ikasle eta irakasle *Musikene salba dezagun* manifestua, kudeaketa berriak urte luzeetan “eraikitako eredu” arriskuan jartzen zuela salatuz (egun musikarekin lotutako 2.700 pertsonen atxikimendua dauka testuak).

Juan Carlos Perez zuzendari artistikoa berriaren izendatzeak ere eragin zituen ika-mikak, 2010eko apirilean. Itoiz taldeko kide eta konpositorearen ibilbide artistikoa zalantzan jarri gabe, musika titulaziorik eta kudeaketa akademikoan eskarmenturik gabeko pertsona zela salatu zuten ikasleek. Aukeraketarako irizpideak goi mailako eskolako zuzendari akademiko bati dagozkionak ez zirela kritikatu zuten. Irakasleek ere “harridura” azalerazi zioten zuzendaritzari, eta hautaketa “desegokia” iruditzen zitzaizela jakinarazi. Perezek, kritiketatik ihesi, Musikeneko patronatuaren erabakian babestu zuen bere burua, ETBri eskainitako elkarrizketan: “Nik nire curriculumak aurkeztu nuen, eta patronatuak egokitzat eman zuen”.

Hezkuntzaren kalitatea gainbeheran

Izendatu eta gutxira eskainitako elkarrizketa horretan, Musikenerako planteatzen ziren murrizketek izan zitzaizkien ondorioak erlatibizatu zituen Juan Carlos Perezek: “Ez dut uste murrizketek eraginik izango dutenik hezkuntzaren kalitatean; zenbaki berrietara egokitzea izango da soilik”.

Krisi ekonomikoari aurre egiteko asmoa zuten neurri berri horiek 27 irakasle kaleratzea eragin zuten, 2010eko abuztuaren 2010-2011 ikasturterako ikasle berrientzako plazak ere 114tik 50era murriztu nahi izan zituen zuzendaritzak, eta aldi berean, ikasleen espezializazioak 34tik 20ra mugatu. Irakasle eta ikasleen partetik sortutako mobilizazioek eta presioek atzera bota zuten zuzendaritzaren asmoa, eta azkenean 75 plaza eskaini ziren, aurreko ikasturtean baino nabarmen gutxia-

go, halere. Masterclass gisa ezagututako klase berezi bat bera ere ez da burutu azkeneko urtean, eta ikasleek egin ditzaketen hautazko irakasgaiak ere izugarri murriztu dira. Ikasle bakoitzaren musika tresnan trebatzeko praktika klaseak –orain arte pertsonalizatuak– kolektibizatze proposamena ere egin zuen zuzendaritzak.

Juan Carlos Perezek esandakoaren kontra, Musikeneko ikasle eta irakasleek behin eta berriz salatu zuten zuzendaritzaren neurri berriek hezkuntzaren kalitatea berri kalterako zirela. Ikasleen musika formaziorako indibidualtasuna –musika tresnen trebatze praktikoan batik bat– eta espezializazioetako aukera zabala ezinbestekoa zela nabarmendu zuten. Salatu zuten, ospe handiko irakasleak kale-ratuz, Musikenera irakasle horiekin ikastearen matrikulatuko liratekeen ikasle asko, ez ziren matrikulatuko. Enmanuel Ferrer-Laloe zentroko piano irakaslearen hitzetan, Musikene “musikaren fakultate teorikoa” bilakatzaren hasia zen. Ikasleek, bestetik, “hezkuntza zentro batean enpresetako koste terminoak ezin” direla erabili salatu zuten, “musika formazioa ez delako torlojuak egiteko enpresa”.

Musikene urteetan lortutako “bikaintasuna”, Europan –are gehiago estatuan– erreferente bat izatera eramane zuena, arriskuan ikusi zuten ikasle eta irakasleek, zuzendaritzak hartutako neurrien ondorioz. Uste zuten posible zela egindako murrizketa “zorrotzak” gabe ere kalitate minimo bat bermatzea. Egoera ekonomikoari aurre egitea baino neurriek bestelako helburuak zituztela pentsatzen zuten ahotsak agertu ziren. Beñat Ralla ikaslearena da horietako bat, iritzi pertsonala dela nabarmendu nahi badu ere: “Nik askotan izan dudana susmoa da ez dutela Euskal Herrirako horrelako zentrorik nahi. Espainian ez badago, hemen ezta ere; ez dadila nabarmendu Euskal Herria zentzu horretan ere”. Rodriguez Suso koordinatzaile nagusiak esandakoak ez doaz ideia horretatik sobera urrun: “Musikene ez dadila parakaidista izan, ez dadila bikaintasunaren irla izan kaskarkeriaren ozeano erdian”.

Esperantzarako tartea

Hilabeteek aurrera egin ahala, eta bestelako neurri eta susmo polemikoak medio –batik bat, Rodriguez Suso Pier Caorekin Parisen batzartu izanaren salaketa, hau ofizialki Orkestra Ikasketetako zuzendari izendatu aurretik– zuzendaritza berriaren kudeaketaren kontrako kritikak ugartu zituen. Aurten go maiatzaren lehenbiziko egunetan, Musike-

Koordinatzaile nagusiak dimititu ostean, normaltasuna itzultzea da helburua orain, hezkuntzaren kalitatea berreskuratzearekin batera

neko zuzendaritza taldeko hiru kidek eta eskolako hamar sailburuek dimisioa aurkeztu zuten. Dimisioa eman zutenek zuzendaritzaren gardentasun falta eta Rodriguez Susoren irakasleekiko konfiantza eskasa salatu zuten. Era berean, azken hilabeteetako irakasle eta karguen hautaketa prozesuan erabilitako irizpideengatik zalantzak agertu eta hezkuntzaren kalitatea murrizten zuen “prekarietatearekin” bukatzeko baliabideak exijitu zituzten. Egoerari ezin eutsita Juan Carlos Perezek berak dimisioa aurkeztu zuen maiatzaren 18an, karguan urtebete eskas eman ondoren.

Ikasleek, egoerari konponbidea emateko Rodriguez Suso koordinatzaile nagusiaren dimisioa ere ezinbestekoa zela iritzita, ordura arteko protestak areagotu eta greba deitu zuten maiatzaren 19an, ikasleen %68,75ek hala sinatuta. Donostiako Bulebarrean kontzertuak emanez gerturatu zioten gizarteari aldarrikapena.

Azkenean, ekainaren 15ean, Rodriguez Susok Musikeneko patronatuaren esku utzi zuen bere kargua, eta honek dimisioa onartu hurrengo egunean. Horrela, hainbat egun lehenago Hezkuntza saileko arduradunek eta Musikeneko enpresa komiteak adostutako neurriari bidea ireki zion. Horren arabera, bi batzorde eratuko dira, kudeaketarako bata –hiru kideekin, Patricio Goyalde buru izango duena– eta batzorde mistoa bestea, hezkuntza komunitateko sektore guztien ordezkaritza izango duena. Horiek izango dira, hemendik aurrera, Musikenera normaltasuna eramateko ardura izango dutenak, eta musika hezkuntzari kalitatea bueltatzeko erronka hartuko dutenak, kaltetutako “bikaintasuna” konpondu nahian. Ikasleak ere agertu dira neurriaren alde, eta esperantzaz bizi dute egoera, Rallaren iritziz “Patri Goyalde konfiantza ematen digun pertsona” baita. ■



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

Liburuak

KRITIKA

Tartariarren basamortua.
Dino Buzzati. (Itzultzailea: Josu Zabaleta).
Alberdania-Elkar. 302 orrialde. 15,50 euro.

Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez

Harmoniarik ez, mesedez

“DINO BUZZATIREN Tartariarren basamortua eleberriak inor ez du hotz edo epel uzten”. Halaxe dio Josu Zabaletak, idazle italiarraren lana euskaratuta, oparitzen digun itzulpen lortu honen hitzaurrean. Eleberri gogorra da, orrialdeak pasa ahala itomena eragiten dizuna baina, aldi berean, utzi ezin duzun horietakoa. Hemen ez da inolako gerra ez kutsu odoltsurik ageri, zertarako? Buzzatik ez du horren beharrik. Nahikoa izan du gizona, edo gizonak, harresiz inguratutako espazio mortu batean kokatzearekin beren beldurrak, historia edota pentsamenduen bitartez, irakurlea, ihesi doan denbora berreskuratzinari buruzko gogoetara bultzatzeko.

Giovani Drogok, Bastiani Gotorlekura iritsi zenetik egunak, hilabeteak, urtaroak, pasatzen ditu paisaia mortu betiberari begira, zerumugatik etsaia noiz iritsiko den zain. Arau militarren zurruntasuna, pareta atzeko uraskaren zarata eta gaueko zapata hotsak zera desiragarriak bilakatu dira Drogoren eguneroko bakardade horretan. Bere bizitza higituz joango da inoiz iritsiko ez den gertaera handi baten zain. Non gelditu dira abenturaz jositako gaztaro garaiak, amodioak, lagunak, arduragabeko momentuak?

Idazleak, Bastiani Gotorlekua inguratzen duen basamortu horretara zuzentzen du gure arreta, pertsonaia bera ez baita gai haren islan bere irudia identifikatzeko. Aukera galduen eremua, hustasuna, desbizitza aurrean zabaltzen zaion arren ez da ikus-teko gai.

Betiereko zirkuluaren ideia antzematen dugu; Drogok, bera bezala gotorlekuan bizitza osoa eman zutenen oinordekotza hartzen du, ondoren etorriko direnek haren lekua hartuko duten bezala, etenik gabeko gupil batean.

Zenbatek sumatu du bizitzari so egunak igarotzen dituela, run-runka ari den etengabeko erritmo bati jarraituz? Gugandik at datorren musika baten pean bizi gara, hasieran gorrotagarri dena baina, azkenik, automatismo osoz geure egiten duguna. Gutxika orkestraren instrumentu bilakatzen gara, notak entzuteari utziz, zuzendariak jotzeari uzteko agindu arte. Baina agindua ez da kanpotik iritsiko, gupila eten ezin den modu berean eta Drogoren bizitza aldatuko duen gertakari handia etorriko ez den bezala. Norberak eragin behar du aldaketa, bere bizitza eta kanpoko erritmoaren arteko melodia harmonikoan jausi gabe.

Beraz, begiak zabaltu eta belarriak zorrotz ditzagun. Basamortua eta desafinazioa antzemateko gai ez bagara, salduta gauden seinale. Momentu horietarako, konponbide gisa, Dino Buzzatiren Tartariarren basamortua berrirakurtzea gomendatuko nuke. ■



Ezteiek ez dituzte denak pozten

Txalapartak eta OQOk elkarrekin argitaratu dute Juan Alfonso Belmontesek idatzitako *Pinto oilarraren ezteiak* liburua. Natalie Pudaloven irudi ikusgarriekin jantzita publikatu da 3 urtetik aurrerakoei zuzendutako istorio hau. Pinto oilarrak Juliana konkistatzeko egingo dituen ahaleginak kontatzen ditu liburuak. Aspalditik zebilen oilarra neska-lagunarekin elkartu nahian

eta azkenean Remigia behiaren bitartekari-tzari esker lortuko du. Ezkontzak inguruko guztiak poztuko ditu.

Guztiak? Ez: Pinudiko Azeriak ezin baitu jasan halakorik. Amorratuta dago: nola ezkon daiteke neskatoa oilar kanpoeder horrekin? ■



Pinto oilarraren ezteiak.
Juan Alfonso Belmontes.
Txalaparta-OQO.
40 orr. 13 euro.

XVIII. mendeko lapurterazko solasaldia

Manuel Padillak Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako masterraren baitan egindako tesiaren laburpena argitaratu du Euskaltzaindiak. XVIII. mendeko lapurterazko eskuizkribu baten transkripzioa eta azterketa da Padillak aurkeztzen diguna, *Kadet eta Bettiriño* solasaldiarena, hain zuzen. Eskuidatzia, liburuaren sarreran azpimarratzen zaigun legez, ez da edonolakoa: 205 orrialde ditu eta lehen mailako lekukotasuna da mende hartako nafar-lapurteraren corpusa emendatzeko. Anonimoa izateak, Hazparneko euskararen lekukotasun zaharrena izateak, irakurle femeninoari zuzenduta egoteak edo hika idatzita egoteak oso idazlan berezi bihurtzen dute, aztertze oso interesgarri. ■

Kadet eta Bettiriño.
Manuel Padilla (edizioa).
Euskaltzaindia.
334 orrialde.
15,60 euro.



Diskoak

IKER BARANDIARAN



Zuretzat gurekin... Javi (DVD).

Atila y los Unos.
Bonberenea Ekintzak.
Iraupena: 1h15'. 10 euro.

25 urte gozatzen... eta etorriko direnak

TOLOSAKO TALDEA izenez bakarrik eza-gutzen nuen eta onartu beharra dut zur eta lur utzi nauela 60 urtetik gora dituen Jesus abeslariak oraindik ere agertoki gainean duen jarrera. Taldea 1985ean sortu zuten eta (Jesusen) inprobisazioa eta umorea taldearen ezinbesteko osagariak dira. Bestalde, unoek, nahiz eta dibertitzeko taldea direla oso argi izan, ez dituzte bertsioak egiten eta rock-and-rolla, patxanga, punka, reggaea eta blue-sa aurki daitezke gustukoen dituzten esti-

loetan eta The Doorsen ukituak ere badituzte. Bi belaunalditako partaideek osatutako talde beteranoak azken aldian urtero hiruzpalau emanaldi egiten ditu eta iaz Bonberenean, hil berri zen Javi baxu jotzailearen aldeko omenaldi-kontzertua egin zuen: jai ikaragarria bihurtu zen, lagun askoren parte hartzearekin. Guztia dago hemen jasota, baita taldeak egindako film labur bitxiak ere.

www.bonberenea.com

Jesus Prados - Atila y los Unos

«Oso gaizki abesten dut, ez dut konpasa ondo eramaten»

Musika ikuskizunarekin eta katxondeoarekin batuta ulertzen duzu?

Bai. Jendea ez da kontzertuetara zehazki musika entzutera joaten, dibertitzera baizik. Horregatik aha-lerin guztiak egiten ditut ondo pasa dezaten. Agertokira motorrean, vikingo jantzita, argi-zuziekin... igo izan naiz, denetatik egin dut. Beti izan naiz aratuste zalea eta buruan txapel bat jarrita, zeharo eraldatzen naiz.

DVD hau da 25 urteotako ibilbidean egin duzuen grabaketa bakarra.

Bai. Grabatzeak ez du zentzurik guretzat zuzeneko taldea garelako. Oso gaizki abesten dut, ez dut konpasa ondo eramaten, eta askotan taldeak ni jarraitu behar izaten nau alderantziz beharrean. Horregatik, ez nuen grabatu nahi, baina Bonbereneakoek konbentzitu gintuzten.

Nolakoa izan zen DVDan jasotzen den kontzertua?

Javiren heriotza kolpe gogorra izan zen guretzat, eta prestatzen ari ginen jai berezia Javiren omenezkoa bihurtu zen. Ez zuen gutxiago merezi: taldeko motorra zen eta lagun ugari zituen. Kontzertua oso hunkigarria izan zen eta arrazoi horregatik taldekideontzat oso zaila. Baina inguruan jende asko daukagu beti laguntzeko prest, eta itzela izan zen.

Zer iritzi daukazu gaur egungo taldeei buruz? Jarraitzen dituzu?

Zerbait berezia transmititzen didan oso talde gutxi daude. Talde askok indar guztiak jartzen dituzte modan egoteko ahaleginean eta protagonista bilakatzean; eta, jakina, horrela ez dute jendearekin, entzuleekin, hartu-eman berezirik lortzen. Bestalde, musikaren mundua oso ustela dago eta inbidia dezente dago. Guk taldearekin lagunak besterik ez ditugu lortu, eta horregatik zoriontsuak gara.

Bonberenean grabatu eta beraiekin kaleratu duzue DVDa.

Bai. Bonberenea deskubritu nuenetik, nire bizitza desberdina da. Leku guztietatik makilakadak jaso badituzte ere, lanean ikaragarriak dira. DVD honen emaitza beraiei zor diegu. ■



Ezpalak

JON TORNER

‘Sarritsasoa’ dantza ikuskizuna Lekeition



LEKEITIOKO Kale Antzerki Jaialdiaren (lekeitiokale.blogspot.com) baitan, *Sarritsasoa* ikuskizuna eskainiko du Donostiako Dantzaz konpainiak, hilaren 8an eta 9an. Bi egun horietan baino ez dute antzeztuko Sarrionandiaren poemak oinarri dituen emanaldia. Lekeitioko Isuntza hondartzan, itsasoz helduko dira dantzariak eta itsasertzean eszenaratuko dute tragedia. Josu Mujikak zuzenduko du ikuskizuna eta Ruper Ordorika, Mikel Laboa, Audience, Ken Zazpi, Jabier Muguruza eta Deabruak Teilatuan taldeak egindako musikarekin osatuko da.

Aritzatxu Rock Free jaialdiaren azken edizioa



BERMEOKO Aritzatxu Rock Free jaialdiaren antolatzaile Nuntxaku Kultur Elkartek adierazi du, 10 urteko ibilbidearen ostean, jaialdiaren azken edizioa izanen dela aurtengoa. Euskal Herriko punk rock jaialdi garrantzitsuenetakoa izan da urte hauetan Bermeoko jaialdia eta antolatzaileen esanetan “gure erara jaialdi inter-


nazional bat egitea lortu dugu eta beti doan, hori izan baita hasiera batetik eduki dugun premisetako bat”. Azken edizioa uztailaren 16an ospatuko da. Nuevo Catecismo Católico (argazkian), Norman, The Capaces, Motociclón, The Riff Truckers, Sermond’s eta Penadas por la Ley taldeak arituko dira besteak beste.

Javier Gonzalez de Durana bilbotarra izango da Balentziaga Museoko (Getaria) zuzendaria. Bere lana izango da hemendik aurrera museo ireki berriaren plan museologikoa egin eta garatzea. Orain arte TEA (Tenerife Espacio de las Artes) museo abangoardistako zuzendari artistikoa izan da. 2001 eta 2008 artean Artium Fundazioko zuzendari izana da. Gonzalez de Durana Filosofia eta Letretan doktorea da, EHUKo Historia Garaikideko irakaslea eta San Fernandoko Arte Ederretako Erret Akademiako kide 1995az geroztik. Rekalde erakustokiko zuzendari ere izan zen 1992tik 2001era.



● **Oihane Ugarteburu sexu hezitzailearen hitzak jaso ditu Berriak:** «Ipuinen balio edo funtzioak sinbolismoaren ikuspegitik daude landuta. Kolore gorria, adibidez, sexualitatearekin lotzen da garbi, baina Txanogorritxuren ipuina kontatzen diogunean umeari, horrek jasotzen du hori? Beharbada, beste interpretazio bat egingo du. (...) Ipuinen helburua entretenitzea da, baina umeak beti jasotzen du zerbait. (...) Ipuinean ikusten badugu emakumea dela etxeko lanak egiten dituen edota besteen zerbitzura dagoena, eta beti polit-polit egon behar duela gero printzeak aukera dezan... hori dena jaso egiten du haurrak. Ume eta hain ume ez direnak beren printze urdina bilatzen saiatzen dira gero (...) Ipuinak, gizar-tearen isla direnez, aurrerantzean ere aldatuz joango dira».

● **Goizalde Landabaso idazleak Deian:** «Euskal literaturak Bilbo erdigunea hartu behar du, harrotasunez egin behar du. Uste dut badela ordua modu aktibo eta sendo batean literaturaren gainekoak antolatzeko eta eskaintzeko. Tarteka egiten dira, han eta hemen, baina uste dut gauza indartsuagoa, anbiziosoagoa, modernoagoa eta erakargarriagoa egin litekeela».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak



JON TORNER

Gorputz asaldagarriak

The Blot. Tom Neely (2007).
182 orrialde, zuri-beltzean.
Interneten: www.iwilldestroyyou.com.

TINTA BELTZEKO orbana da komikiari –barkatu, “nobela grafikoari”– izena ematen dion *The blot* delakoa. Ezin negona sortzen duen lainoak bazterrak zikintzen –ezabatzen– ditu, eta kale zein pertsonen barrenak inbaditu.

Zuri-beltzeko istorio mutu honetan ageri diren pertsonaiek 1930-40ko hamarkadetara eramango gaituzte, Popeyeren Olivia gogorarazten diguten figura mehar eta luze, buru borobil eta obalo formako begi beltz horiekin. Hanka, beso eta gorputzen desproporzioak, eta pertsonaiei keinu –hasiera batean– xaloek ukitu inuzentea ematen diote komikiari eta, hain justu, horrek guztiak istorioaren garraztasunarekin talka egingo du, lurreratze pasarte gutxi batzuen ostean, orban beltza protagonistaren jabe egiten den momentutik bertatik. Liburuko protagonista, izenik ez duen gizon gaztea, kalera irtengo da



astearte batean (liburuko letra bakarrenetakoei egunari erreferentzia egiteak metaforaren bat ezkututzen duen ez dakigu), eta aurki konturatuko da egun hori ez dela gainerakoen modukoa izango. Orbana jarraika izango du izenik gabeko hirian barrena, eta gauean ez

dio lo egiten utziko. Borrokan arituko dira tai gabe, harik eta orbanak gizon gazteari nortasuna lapurtuko dion arte. Narrazioak tonu surrealista hartuko du, absurdu eta esperpentikoa, sarri asaldagarria.

Kolore oso gutxi erabili du Tom Neely (Texas, AEB, 1975) komikigileak bere aurreneko “nobela grafikoan”, nobela grafiko gehientzuenetan gertatzen den moduan ⁽¹⁾. Bukaera aldera soilik ageri dira ukitu gorriberdeak, eszena arras desberdin bi marrazteko. Protagonista bere burua kolpatzen dueneko alde batetik, zeina liburuko eszenarik biolentoena den; eta, bestetik, esperantzaren ikurtzat har daitekeen limoiondo berdearen pasartea. (Trankil, bukaera ez dut deskubritu-eta) ■

⁽¹⁾ Zer mania hartzen ari naizen termino horri!

inguru
ABENTURA.COM

info@inguruabentura.com - 635 748 948

Descenso de Cañones, Espeleología, Puenting, Multiaventuras, Despedidas de solter@ y mucho mas...

Arroila Jaitsierak, Espeleología, Zubi saltoa, Multiabenturak, Ezkon aurreko agurrak eta askoz gehiago...

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

ERA, MOLDE HITANOA	PERTSONAIA- REN ABIZENA KUBO FORMAKOA	... EGIN, ARRAINAK AMUAN HOZKA EGIN	GOROTZA PUTRE	ABAGUNE, AUKERA SASOIRA HELDU	EGUZKIA PERTSO- NAIAREN IZENA	MUSIKA TRESNA PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA
		ERRAZ ESKURATZEN DENA IRIDIOA				
ARNEGUA, AMORRUA LABURRI			ONTZIEK MULTZOA, ONTZIDIA ROENTGEN			
				GAILUR, TONTOR NAIZEN HAU		
EUSKALTEGI SAREA	MUSIKA NOTA (ALD.) EHUNEK OSATU				ERREPIKA- TUZ, TXORI MOTA IKUR	
		GIZA ITXURAKO MAKINA		ERREPIKA- TUZ, LOGU- RAREN EULIA TXIKI		TREBEAK, GATUAK
TOKI HORRETAN ZAREN HORI						
	OXIGENOA ERAKUNDE BELIKOA			TARTEA ERREPIKA- PENA ADIE- RAZTEKO		
ONGI DA (AL- DERANTZIZ) METODOLO- GIARI DAGOKIONA		LIBURUKI LETRA IZENA	BEGIRADA PINU MOTA	BOROA HARAGIARE N MINTZA	BAIEZTATZE- KO HITZA NOREKIN ATZIZKIA	
						BOKAL BIRIBILA KRIPTONA
KATU EME TOKI HONETARA			GORDEAN GIGA			
		GURDIA			ZEINEK	



DANI BLANCO

Kike Amonarizen umorea

Neguritarraren ziztada

Ferrari gorria gidatzen duen txoferak, Bilboko medikurik entzutetsuenaren ate parean utzi du Neguriko familiarik aberatsetako baten alaba. Ilararik itxaron gabe, atzeko atetik sartu da kontsultara:

– Mediku jauna! Lagundu egin behar didazu! Arkakuso batek ziztatu nau!

– Lasai, emakumea! Hori ez da oso larria eta aise konponduko

dugu. Ea, non ziztatu zaitu?

– Ezin dizut esan, sekulako lotsa ematen dit!

– Baina ezer egitekotan jakin beharko dut, bada, non hartu duzun ziztada! Gainera medikua naiz eta datu horiek sekretu profesionala dira! Zaude lasai horregatik!

– Zin dagidazu ez diozula inoiz inori esango non ziztatu nauen?

– Bai, emakumea, zin dagizut!
– Ondo da! Lidl-en!

Soluzioa

P	E	K	E	P
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I	K	A	I
L	A	B	U	R
G	I	K	A	I
H	I</			

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Sudurreko zelula amak garuneko gaitzak sendatzeko



MARSEILLAKO ETA MONTPELLIERREKO lau ikerlari taldek, *The Journal of Clinical Investigation* aldizkarian argitara emandako artikuluan, sudurreko zelula amek garuneko lesioak osatzeko duten erabilgarritasunaren berri eman dute.

Ikerlariok amnesia eragin zieten sagu batzuei, eta ondoren gizakien sudurreko zelula amak txertatu zituzten haien garunean edo likido zefalorakideoan.


Handik tarte batera, saguek amnesia eragin aurreko portaera berreskuratu zuten, hau da, objektu baten kokapena memorizatzeko gaitasuna, usaimenaren bidezko orientazioa... berreskuratu zituzten.

Bestalde, ekipo australiar batek, aipatu teknikaren antzekoa erabiliz, aurrerapenak lortu ditu saguen entzumenean. Badirudi sudurreko zelula amen bidea oso fruitu interesgarriak ematen ari dela.

Argi bidezko geneen aktibazioa

GENEEK, aktibatzen direnean, oso substantzia desberdinak sortzen dituzte, eta substantzia horien ondorioz era bateko edo besteko portaerak sortzen dira izakiengan. Baina noiz aktibatzen dira geneak? Edo hobe esanda, posible al da geneak artifizialki aktibatzea? Bada, ikerlari talde frantziar-suitzar batek horretarako bidea aurkitu berri du.

Melanopsina erretinaren hainbat zeluletan dagoen fotopigmentoa da; argi urdina xurgatzean hainbat erreakzio kimiko eragiten du, eta erreakzio horien ondorioa da zenbait gene aktibatzea. Ikerlariak zera egin zuten: melanopsina kodetzen duen genea txertatu zuten gizaki eta saguen zenbait zelulatan. Horrekin batera, luziferasa entzima kodetzen duen genea ere txertatu zuten; luziferasak bioluminiszentzia eragiten du, hau da, bizidun batek argia igortzea. Eta ikusi zuten argi urdinaren presentzian bioluminiszentzia gertatzen zela. Alegia, gorago deskribatutako mekanismo konplexuak funtzionatu dezakeela erretinarenak ez diren zelula-multzoetan ere. Genetikaren aplikazio berri baten atarian izan gaitzkeela ematen du.



Melanopsina.

Babeslea: iametza Interaktiboa

Plastiko zati txikiak elikagai katean

Mediterraneo itsasoan eginiko ikerketa baten arabera, arrain txikiaren bidez pasatzen dira hondakin plastikoak elikagai katera. Pentsa dezakezue, arrain handiek arrain txikiak jatean plastiko puskak arrainez arrain igarotzen dira.

<http://ttiki.com/29914> (Frantsesez)

Aspertzeak ere zientziaren arreta merezi du

Gizakien emoziorik gehienek merezi izan dute azterketa zientifikoren bat, baina asperdura ahaztua izan da orain arte, edo besterik gabe ez da zientzialarien gustuko aztergaia izan. Kanadako Calgary Unibertsitatekoek heldu diote gaiari orain. Diotenez, aspertzeak mesede handia egin diezaguke, onuraren bat ekarriko diguten gauzak egitera bultzatzen gaitu eta.

<http://ttiki.com/29915> (Gaztelaniaz)

Orain dela 800.000 urte desagertutako landarea agertu da berri

Izotz artean harrapatuta zegoen *Neodenticula seminae* espezieko planktona berragertu egin da Ipar Atlantikoan. Azken 800.000 urtetan izotzetan eman ondoren, berotegi efektuaren eraginez izotza urtu eta berriro bizitzeko aukera lortu du izaki honek.

<http://ttiki.com/29916> (Gaztelaniaz)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Abadeen erromeria

JEAN PIERRE ARMAND DAVID HALSOUET (1826-1900) apaiz naturazale ezpeletarra zientzialari euskaldunen artean gorenetakoa izango dugu. Hil zen urte berean Manex Hiriart-Urrutik *Eskualduna* astekarian idatzi zuen “Eskual-herritik behinere jalgi diren jakintsun handienetarik bat” zela. Eta guk, berari buruz zipitzik ere jakin ez. Gure utzikieriaz baita ere, frantses zientzialari bezala ageri da ia beti.

Mukizapien zuhaitz dotoreak bere izena darama, *Davidia involucrata*. Ez da bakarra baina.

Azkenaldi honetan, landare inbaditzaileekin aztoramena zabaldu nahi den garaiotan, gure “gure” ekosistemetako landareen arerio izendatu denetako batek ere bera dakarkigu gogora: *Buddleja davidii*. *Buddleja* generoaren izena Essexgo Farmbridgeko Adam Buddle (1660-1715) apaiz botanikariaren ohorez jarritakoa da. Zer hitz egina eman du bai apaiz arteko landare honek ere.

Armand Davidek Txinan aurkitu zuen 1869an, baita haren deskribapena idatzi ere. Urte batzuk igaro

ziren, ordea, landarea Europara ekarri arte. 1890ean aipatu zen lehenengoz gure kontinentean. Eta Jean André Soulié izeneko beste abade batek 1895ean Vil-morin muintegietako jabeari bidalitako hazi batzuetatik zabaltzen hasi zen. 1915etik aurrera barra-barra. Lehengo mende horren amaiera aldera “inbaditzaile” izendatzen den arte. AEB eta Europako toki askotan

ezin ikusi dute eta bere aurkako gerra publikoa eta subentziona-tua da. Geurean, adibidez. Landugabeko sail eta lugorrietan erraz asentatzen da, eta agudo zabaldu. Ez da harritzekoa, landare bakoitzak, batez beste, hiru milioi hazi ematen ditu urtero.

Txinerazko bere izenak “arrai-nak mozkortzen dituen landare” esan nahi du. Bere usainak inguru samarrean harrapatzen

duen edozein horditzeko duen kemena adierazten du. Batzuek, baina, gustura galtzen dute burua usain gozoegi horretan: tximeletek. Tximeleten zuhaitza deitzen zaio. Loretan dagoenean inguruan izaten duen tximeleta eta intsektu dantza ikusteko modukoa da. Udako solstizioko erromeria polita.



WWW.123RF.COM

Kalparra

“Aurten parte onekoa ez den zerbait badator” eta antzekoak entzun ditut udaberri honetan. Loraldi bikainak, fruituak oparo, hostajeak jori, uzta aberatsak... eta nekazariaren badaezpadako pentsaera horrek ezin gozatzen utzi gaitu. Uztaren peskizan, bizimodua aroaren araberari lotuta bizi dena beti da nokieroko botikaren beldur.

Aurtengoan ez da, oraindik, aldrebeskeria handirik izan eta ustela ez den ustearen beste erdiaren bidetik doa dena. Baita, *Castanea sativa*, gaztainondoaren loraldia ere, ikusteko modukoa. Urtero, egunik luzeenetan ileordekoa janzten dute, aurten inoizko kalparrik trinkoena. Hori bai, kolorea ez dute aldatu, betiko rubio-rubio ageri dira. Hermafroditak izanagatik kalparra lore ar harroek osatzen baitute, alderdi arra lorietan den egun bakanak. Alde emeak isil asko fruituak haziko ditu. Aurtengo uzta? Ikuskizun dago; gero gerokoak!

Ederki zioen lehengo batean Pello Zabala maisu handiak: “... lurrazalak berez urtero janzten duen kalpar natural aurten tximatsuago...”.



JAKOBA ERREKONDO

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Euskaldun herren bat Tourrean

PARIS, 1991KO UZTAILA. Miguel Indurainek bere lehen Frantziako Tourra irabazi zuen. Baina euskaldunak askoz lehenago hasi ziren Indurainek duela hogeitau urte lortutako saria eskuratzeko ahaleginetan. Lehena Vicente Blanco "Herrena" larrabetzuarra izan zen, duela 101 urte.

Nerabe zela itsasontzi bateko sukaldari laguntzaile lanetan hasi zen Blanco. 20 urterekin Basauriko La Basconia burdingintza fabrikara aldatu zen, eta, berehala, lan istripu bat izan zuen: burdin barra gorria ezkerreko oinean sartu zitzaion. Handik bi urtera, Euskaldun lanean zela, beste istripu baten ondorioz, eskuin oineko behatz guztiak galdu zituen. Orduan jarri zioten "Herrena" ezizena.

Burdingintza utzi behar izan zuen, eta Olabeagako kaian angulak harrapatzen eta txalupari aritu zen. Oinez ibiltzeko zailtasunak zituenez, bizikletan ibiltzen hasi zen. Pneumatikorik gabeko bizikleta zahar herdoildua lortu, konpondu eta, gomazko gurpilak erosteko dirurik ez zuenez, itsasontzietako soka lodiak ipini zizkion. Federación Atlética Vizcaína zelakoan federatu zen, eta lehenengo lasterketa bizikleta horrekin egin zuen; emaitza ez zen ona izan, jakina. 1907an, ordea, FAVek benetako bizikleta utzi zion eta



Vicente Blanco "Herrena" (1884-1957) Frantziako Tourrean parte hartu zuen Euskal Herriko eta Iberiar Penintsulako lehen txirrindularia izan zen.

Espainiako Txapelketan lehiatu zen: hamargarren postua lortu zuen. Eta hurrengo bi urteetan txapelketa hura irabazi zuen. 1910ean ordura arte Euskal Herriko txirrindulariek egin gabeko jauzia egitea erabaki zuen: Frantziako Tourrean parte hartuko zuen.

Ez FAVek, ez Blancok, ez zuten Pariserako bidaia ordaintzeko dirurik, eta, Madrilgo Continental enpresak pneumatikoak eta sos batzuk eman arren, "Herrenak" Bilbotik Parisera bizikletan joatea beste erre-mediorik ez zuen izan; Tourra lehenago hasi zen bizkaitarrarentzat.

Vicente Blanco uztailaren 2an iritsi zen Tourraren abiapuntura, akittuta, erdi gaixo, bizikleta txikituta. Baina bizikleta hobea lortu eta Tourra antolatzen zuen *L'Auto* aldizkariaren egoitzan izena eman zuen.

Paris eta Roubaix arteko lehen etapan hamargarrena izan zen; harri-garria, egun gutxi batzuk lehenago egindako ahalegina kontuan hartuta.

Bigarren etapan Metzko helmugara iritsi zen, baina hirugarrena amaitu baino lehen erretiratu behar izan zuen.

Vicente Blanco miseria gorrian jaio eta miseria gorrian hil zen. Baina, tartean, oin elbarriekin pedalei eraginez, hemeretzi garaipen lortu zituen; hogei, Tourreko "porrota" kontatzen badugu.

Arrastoak

Zergatik ditu musika CDak 74 minutu?

1980AN SONY ETA PHILLIPS etxeek 74 minutuko musika CDa asmatu zuten. Baina zergatik ez 70 edo 75 minutukoa? Norio Ohga Sonyko presidente megalomanoak inoizko piezarik luzeena, Beethovenen 9. sinfonian Wilhelm Furtwänglerren 1951ko bertsioa,

diskoan sartzea nahi omen zuelako. Horixe da CDaren iraupenaren azalpen eder eta bitxia. Azalpen teknikoarealagoa da, ordea: 12 zentimetroko diskoaren 650 Mb-etan, 150 Kb/s-ko audio estandarrean, 73,95 minutu besterik ez dira sartzen.



JESUS DIAZ-GIZMODO

Amaia Izko

«Presoek normalizazio prozesuan parte hartzeko aukera itxita dute»

Iruñea, 1971. Zuzenbidea ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean. Amnistiaren Aldeko Batzordeetako (AAB) kide izana. AEKn ikasi zuen euskara, baita AEKn irakasle aritu ere. Iruñean hasi zen abokatu lanetan 1996an. Harrezkero preso politikoen alde jardun du beti.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Josu Santesteban

Hamabost urte daramatzazu euskal presoen aldeko lanetan. Zein da zure esperientzia?

Abokatu lanak baditu bi mutur, oso markatuak. Batetik, presoekin harremana dago, baita hauen familiekin ere. Bizi, ikasi, ikusi dudanak asko aberastu nau, harreman politikak ditut alde horretatik. Beste muturra guztiz kontrakoa da: errepresioaren lekukoa izatea gertu-gertutik gogorra da. Auzitegi Nazionalaren mundu iluna ezagutzeak, torturak eta sufrimenduak ikusteak, pertsonak “politikoki” nola tratatzen dituzten ikusteak ukitzen zaitu. Auziak oso arin izaten dira askotan eta horren tarte gutxiarekin aritzeak larritzen zaitu, preso eta familiekin zein inpunitatearekin aritzen diren ikusteak mintzen zaitu. Nik alde goxoarekin geratu nahi dut, noski.

Non daukazu zailtasun gehien abokatuek?

Ia den-dena erabakita izate horretan. Nahiz eta batzuetan lorpen judiriko batzuk dauden, konturatzen zara dena kontra daukazula. Beste alor batzuetan ere ez dute erraza ziur aski, baina mundu honetan laguntza juridikoa jasotzeko oso tarte txikia dago. Zuk prestatu dezakezu zure lana edota auzia ondo, arduraz, baina zure ahalegina Auzitegi Nazionalan mespretxuz hartzen badute... Ertzak oso definituak dira, haiek [magistratuak edo epaileak] nekez ateratzen dira tarte horietatik.

Gatazkaren bilakaeran, abokatuak ere atxilotuak izan zarete Espainiako Estatuan. Zeren ondorio da hori? Zein da zure interpretazioa?

Ez da gauza berria, ni hasi nintzenean [1996an] abokatu batzuk espetxetik pasata ziren jada:





"Orain atxilotetak baretu direnez, horri garrantzia eman diote. Izan ere, atxiloteta prebentiboen kasuak gelditu izan dira nolabait, ez baitzuten inor kondenatzen".

Txemi Gorostiza, Josemari Elosua, Alvaro Reizabal... Betidanik egon da abokatuak kriminalizatzeko saiakera. Guk juridioki lan egiten dugu, eta, aldi berean, salaketa lan handia egin ere: sumatzen ditugun irregulartasunak, torturak, eskubideen urraketak, horien guztien bozgorailu gara. Beste batzuk ere ari dira noski, baina gu gara lehen eskuko lekukotasunak jasotzen ditugunak, eta horregatik saiatzen dira hori ekiditen.

(...)

Dena den, azken urteotan, ez bakarrik ETari edo kale borrokari begira, giza sektore zabalak ere kriminalizatzen saiatu dira. Sektore politiko eta sozialak izan dira errepresioak ukituak, zentzu horretan ere areagotu da gure aurkako errepresioa. Abokatu piloa izan da atxilotua: Iñako, Joseba, Iker, Jon, Arantxa, Aritz, Haizea... Zazpi abokatu, talde berekoak, oso denbora gutxian. Horretan elementu bat ageri da: preso asko isolatu dute eta abokatuei presoekiko bideak itxi dizkiete, hauei, presoan lagunei edo senideei. Abokatuak presoan laguntza juridikoa askotan muturreko egoeretan landu behar dute hartara.

Zertan da egun legea? Lege prebentiboa deitua, adibidez, garai bateko Lege Antiterrorista zelakoaren aldean?

Atxiloteta prebentiboaren kontzeptua Barne-arazoetako ministerioa hasi zen erabiltzen. Hau da, delitu egin baino lehenago atxilotzen duten pertsonari aplikatzen zaio: "Ez du ezer egin, ez dakigu ETan sartu den, baina asmoa duela sumatu dugunez, atxilotu dugu". Noski, hori ez da kontzeptu juridiko bat, beraiek alarma edo beldur egoera bat zabaltzeko erabili duten modua baizik. Berez, Espainiako Estatuaren zuzenbide kodearen kontrakoa da erabat. Alegia, inork deliturik egin badu, atxilotu edo dei dezaten epaitegira, baina hori ez dute inoiz egin noski. Atxiloteta asko, ehundaka, prebentibo kontzeptu pean egin dira, eta horietako %10 izan da kondenatua. Eta espesxean denbora luze egon dira.

Berriki, Auzitegi Gorenak atxiloteta prebentiboei buruzko iritzia eman du.

Auzitegi Gorena poliziaren deklarazioez aritu da, baina legeaz ez du ezer berezirik esan. Orain atxilotetak baretu direnez garrantzia eman dio horri. Izan ere, atxiloteta prebenti-

boen kasuak gelditu dira nolabait, ez baitzuten ia inor kondenatzen.

Torturen kasuak hizpide: aldaketarik eman al da Lege Antiterrorista indarrean zegoen garaitik gaurdaino?

Egon den aldaketa bakarra haxe da: espreski zegoen Lege Antiterrorista ez dago espreski izendatua, baina legedi arruntean sartuta dago: ez dago atxilotuaren inkomunikazioa nolakoa izan behar duen agintzen duen lege bat, baina lege arruntean egoera horiek sartuta daude. Atxiloteta hauei "inkomunikatuak" deitzen zaie. Atxilotuak eskubide batzuk beharko lituzke, alegia, bere familiak jakitea non dagoen atxilotua, familiak berak aukeratutako abokatuak lagundua izatea. Atxilotuak hiru egun pasa ditzake atxiloteta arruntean, eta kasu honetan bost egunetan. Bost egun komisaldegian, eta kartzelan ere beste bost egun inkomunikatua egon daitekeela aurreikusten da. Berezitasunak horiek dira, eta praktikan ere badaude. Bereziki Euskal Herrian atxilotua egon edo Madrilen atxilotua egon.

Zein dira inkomunikazioaren xedeak?

Inkomunikazioak bilatzen du, bate-tik atxilotua babesik gabeko egoera batean jartzea, eta, bestetik, inpunitatearen harresia jartzea. Atxilotua erabat isolatuta dago, bakartua, errealitateetik aldentua bost egunez eta gaez, atxilotu dutenek baino ez dute ikusten. Berak badaki inork ezin diola lagundu, eta horrek babes ezaren sentimendua sortzen dio. Egoera horretan, erabat ahul bihurtu duten pertsona batengan ematen da tratatu txarra. Baina, aldi berean, inkomunikazioak inpunitatea ziurtatzen du, atxilotetak irauten duen bitartean kanpoko edozein eragin ekidinez, eta ondoren, ikerketa erabat baldintzatuz, ez baitago jakiterik nork parte hartu duen galdeketeretan, nork eman dituen kolpeak, nork mehatxuak egin, edo non, noiz edo nola gertatu diren kasu guztietan ukatuak izaten diren egitateak.

Torturak ekiditeko bitartekoak jarri omen dira, alferrik ordea.

Bai, eta neurri asko eta era askotakoak beharko dira torturarekin amaitu ahal izateko. Horietako batek inko-

munikazioa bertan behera geratzeko balio izan behar du, halaberharrez. Izan ere, inkomunikazioak irauten duen bitartean, tortura ahalbidezko ezin egokiago den markoa dagoe-lako, edota, horregatik, tortura ego-teko arriskua, gutxienez.

Abokatu batek zein sentimendu ditu torturatua ikustean?

Bada, batez ere, inpotentziaren sentimendua. Niri kontatu dizkidaten gauzek oilo ipurdia jarri didate, espetxetik oihuka egiteko gogoz ateratzen zara, negar puntuan. Izugarria da, nik sentitzen dut ezin dudala pertsona hori lagundu juridikoki, eta abokatua naiz. Pertsonalki ahalegintzen zara, baina juridikoki itxita daukazu bidea. Egoera salatzten duzu, baina dena duzu kontra. Badakizu kasua artxibatuko dutela edozer gerta ere, nahiz eta zauriak agerikoak izan, ez duzula errekonozimendu juridikoa jasoko. Hori zama izugarria da. Abokatu zaren heinean laguntza juridikoa eskaini nahi diozu, eta politikoki eta sozialki ere nahiko zenuke pertsona hori torturatua izan dela errekonozitzea, modu orokorrean bada ere. Salaketa publikoa egitea garrantzitsua da. Horretan saiatzen naiz. Eta badakit gatazka honetan presoak ez direla sufritzen duten bakarrak.

Amnesty Internationalek (AI) torturak salatu ditu.

NBEk eta AIk askotan esan diote Espainiako Estatuaren Gobernuari inkomunikazioa ez datorrela bat eskubideen errespetuarekin, zerbait egin behar duela. Baina ez die bate-jaramonik egiten. Azkenean zer-

bait egin behar izan du, ez kasu guztietan. Azken urteetan Auzitegi Nazionaleko epaile batzuk, ez denak, hasi dira protokolo bat erabiltzen, Estrasburgoko protokoloak agintzen duena betetzeko. Hasi dira erabiltzen, besteak beste, atxilotua kamaraz grabatzeko, konfiantzazko mediku bat izateko eta familiarrek atxilotua nola dagoen jakiteko. Horiak dira neurriak, poztekoak, hasi dira aplikatzen, baina jarri dute "azeria oiloak zaintzen". Kamerak guardia zibilen eta polizien esku jarri dituzte. Grabaketak egitea agintzen zaie baina pasiloa eta ziegako atea hartzen dituzte irudietan, edota atxilotuen oinak. Horrek ez du ezertarako balio, eta halere, neurriak indarrean ezarri direla diote. Bada ez. Tortura egon badago, eta gainera protokoloa gure kontra erabiltzen dute, atxilotuaren kontra erabiltzen dute.

"Tortura egon badago, eta gainera protokoloa gure kontra erabiltzen dute, atxilotuaren kontra erabiltzen dute"

Beraz...

Bai, bistan da, horrek guztiak zerbait ezkutatzten du. Areago, epaileak agintzen du atxilotua hogeitalau orduez grabatzea, baina ez dute betetzen. Horrelako neurriak ikusita inkomunikazioak bukatua beharko luke, baina, hasteko, kontua da zeinek duen neurrien kontrola, poliziek berek baldin badute... Neurriek polizien eskutik baita epaitegiaren esku-

tik at beharko lukete. Tortura babes-teko Estatuko herri defentsorearen eskutiko tresna bat jarri zuten indarrean, baina ez du balio, balio lezake horrelako neurriak martxan jarri eta ziurtatzea, baldin eta holako tresna bat gizarte zibileko erakundeen esku balego. Hortik etorri ahalko litzateke konponketa moduko bat.

Zergatik eman dio gizartearen parte handi batek bizkarra torturen egoerari eta hauen salaketari?

Gizarteak erantzun handia eman du torturen kontra, teorian jende guztia asaldatu beharko lukeelako, baina pasibitate handia ere ezagutzen dugu, eta pasibatetik bizkarra ematera pasa da azken urteetan, areago Espainiako Estatuan, baita justifikatzeraino ere. Hori egia da. Errealitatea da. Baina ez dut uste hemen gertatzen dena isolatua denik munduan gertatzen denetik, mundu osoan diskurtso ideologiko mailan pauso handiak eman dira eskubideen urraketetan, eta horrek eraman du jendea asko pentsatzera terrorismoaren aurka torturak balio duela, hemen are gehiago gatazka pil-pilean dagoelako. Espainiako Estatuak lan ideologiko handia egin du, baita torturaren arloan ere. Batetik, tortura blindatzeko. Tortura beraiek izendatzen dute estrategia errepresiboaren barruan tresna garrantzitsutzat, hori logikoki legalitatetik at dago, sistema blindatuta dago, babestua, erabili behar bada ondo erabiltzen dute, eta kosturik gabekoa da Estatuarentzat, ez baita legala, delitu larria delako, baina blindatzen dute ikuspegi juridiko eta politikotik eta ukatzen dute, eta jarraian diote guk asmatzen dugula

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



“Estatuak apustu egin du kolektiboa apurtzeko. Langraitzeko presoen egoera ez da pertsonalki heldu, Estatuaren eskutik baizik, eta horrek beldurra ematen dit. Uste dut presoen egoerari kalte egiten diola”.

Estatua deslegitimatze. Jende askoren aurrean lortu dute tortura ez existitzea, lortu dute apostu ideologiko hori aurrera ateratzea, eta bestetik, urratsak are kezkarriagoak dira justifikatzen dituztelako. TVko dokumental batean polizia ikasleei galdetu zieten torturaz: “Behar baduzu, testuinguruaren arabera, erabili behar da” zioten. Nola ote? Bada, anestesia lan handia egin delako.

Nola daude behin betiko preso kondenatuen kasuak?

Presoen kolektiboaren 27 lagun inguruk aplikatua dauka bizi osorako zigorra [Parot doktrina deitua]. Nafarroan sei preso dira, eta beste askok ere 30 urte espetxean pasako dute. Maukatik ateratzen duten neurria da, noski. Preso asko ateratzeko esperantzaz zeuden eta ez dakite noiz bukatuko duten espetxealdia. Nafarroan, Unai Gaztañagarena izan zen lehen kasua. Ateratzear zela aplikatu zioten Parot doktrina dela-

koa. Presoak prest daude aurrera egiteko, laguntza asko daukate, baina bilatzen duten eragina ondo bilatua dago, presoak suntsitzeko modua da.

Antton Troitiñoren kasuan zer gertatu zen?

Auzitegi Nazionalak zioenez, kausa bakoitzean behin-behinean egindako denborari zenbatu eta gehitu behar zitzaiola, hori ez zela horrela aplikatzen. Legeak horrela dio, ez zen horrela egiten, ez zen zenbatu behin ere. Antton Troitiñorekin aplikatu zuten. Konstituzionalak esan zuen legea aldatzen ez zen bitartean zenbatu behar zirela urteak. Auzitegi Nazionalaren 3. sekzioak ez du lege berezirik aplikatu nahi izan, orduan Gorenak preso politikoekin halako zerbait gertatu denean legea aldatu

dute, legearen interpretazioa aldatuz. Troitiñoren kasua ikusita, legea aldatu dute legearen interpretazio ezberdinak ekiditeko.

“Antton Troitiñoren kasuan, legea aldatu dute legearen interpretazio ezberdinak ekiditeko”

Nolakoa da ETAren su-etenean edo bake prozesuan presoek egoera?

Nik Aljerrekoa ez nuen ezagutu, baina Lizarra-Garazi eta Loiolako negoziazio prozesuekin aldera ditzaket oraingoa. Lizarrako garaian Auzitegi Nazionalak tartea ireki zituen; presoak askoz errazago ateratzen ziren behin-behineko askatasunean eta zigorrak arinagoak ziren, epaiketetan nola-halako adostasunak izaten ziren. Ziklo hori itxi bitartean HBko Mahai Nazionala atxilotu zuten eta kondenatu. Auzi-

tegi Nazionalak bailogabetu zuen ebazpena. Baina dena pikutara joan zenean, magistratu bati entzun nion irratian: “Okertu gara, ez gara konurtatu gerra garaietan garrantzitsuen delako bahituak izatea”. Ondoren ikusi duguna gogoeta horretatik etorri da, Loiolako prozesuan nahiz orain ere, ez dute ezer mugitu. Judikaturretatik ere bahituei etekin ahalik eta gehien ateratzen ahalegindu dira, presio gehiago eginez, egoera baldintzatzeko, presoek betiko egoerari eusten diote.

Presoek nola bizi dute egoera?

Errealitatean txertatu daude, eta lasaitasunez hartzen dute, arretaz begiratzen diote gertatzen denari, baina kontziente dira estatuen hatzaparretan daudela. Esperantzak denok ditugu, “ea oraingoa lortzen dugun hau aurrera ateratzea” pentsatzen dute, baina Sevillako gela ziztrin batean sartuta zer pentsatuko duzu? Badakite ezin dutela ilusio faltsurik egin, haiek erabiliak direla presio moduan eta mendeak jasotzen lehenak direla.

Oraingo prozesuan presoek parte hartzeko aukera ikusten al duzu?

Beren ahotsa beraiena da, beren mintzakideak dituzte izendatuak... Kolektiboa ahalegintzen da hitz egiten ahalik eta eragile gehienekin, baina normalizazio prozesuetan atea itxi izan zaie eta egun ere itxita daukate. Presoen kolektiboa inoiz baino sakabanatuagoa dago, hau da, espetxe bakoitzean binaka daude, salbuespena da bi baino gehiago izatea modulo batean. Horrek ez du laguntzen beren parte-hartzea, beraien eztabaida lantzea. Hori saihestu nahi dute, baina haiek prest daude parte hartzeko.

EPPKtik kanpo badago talde bat Langraitzeko espetxean...

Tira, Estatuak apustu egin du kolektiboa apurtzeko, eta ondorioz Langraitzeko presoek egoera Estatuaren eskutik heldu da, eta horrek beldurra ematen dit. Uste du, preso horien jarrerak egoerari kalte egiten diola. ■

arcia.com Aurore Martin kasuaz eta Portu eta Sarasolen egoerari buruzko ikuspuntuak.



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Immigrazioa

200.000 lagun, jendartearen beharrianak asetzera etorriak

Euskal Herrian, immigrazioaren zifrek gora egiten jarrai dezakete datozen urteotan, eta bikoiztu ere egin litezke, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan; beste lurraldeetan berriz, zailagoa izango da handitzea, Gaindegia Euskal Behatoki Sozioekonomikoaren 2010eko Txostenaren arabera.

DANIEL UDALAITZ

EUSKAL HERRIAN, beste hainbat tokitan bezala, bazirudien immigrazioa eten egin zitekeela krisiaren eraginez, eta baliteke azken hilabeteotan horrelako zerbait gertatu izana. Hala ere, aurreikuspenak kontrako bidean doaz. Hori da behintzat Xabier Aierdi euskal soziologo eta EHUKo irakaslearen tesia; izan ere, Euskal Herri osoko immigrazioari buruzko analisi sakona egin du. Lan hori Euskal Behatoki Sozioekonomikoak azken asteotan plaza-ruen *Gaindegia Txostena 2010* delakoan argitaratu da.

Horrela, immigrazioak jarraitu egingo du Euskal Herrian, azken urteotako zifra apalagoekin bada ere; dena den, immigrazioak gora egingo du datozen urteotan. Bizkaian eta Gipuzkoan kopuruak bikoiztu ere egin litezkeela uste da. Zailagoa izango da gauza bera gertatzea gainerako lurraldeetan. Tesi horri eusteko, Aierdik “euskal parke industrial sendoaren beharrianak” nahiz “gizartean edukiko ditugun beharrianak —gizartea zahartzea, menpekotasuna kudeatzea, emakumearen rol tradizionala berraztertzea, indibidualismoaren fenomeno, eta abar—” hartu ditu kontuan. Etorkizunaz duen ikuspegia osatzeko, jatorrizko nazionalitateek berdintzeko joera izango dutela dio, halako moldez non zati bat Estatu-ko beste erkidego batzuetatik etorriko baita, eta, beste bat, atzeritik.

Hegoaldeko 2009ko eta Iparraldeko 2007ko datu ofizialen arabe-



DANI BLANCO

Gizartearen beharrianen artean adinekoen arretak indar handia hartu du eta etorkinak zeregin garrantzitsua ari dira izaten lan horretan.

ra, 215.686 atzerritar bizi ziren guztira Euskal Herrian. Bertakoak, data horietan, 2.939.702 pertsona

ziren. Ondorioz, populazio osoa 3.159.388 pertsonakoa zen. Horren arabera, gure herrian,

immigrazio-tasa %6,8koa zen data horietan, lurraldeen arabera ehuneko desberdinekin.

Atzerritarren tasarik handiena Nafarroa Garaian

Euskal Herriak, gaur egun, 3.100.000 biztanle ditu; datuak 2010ekoak dira Hegoalderako eta 2008koak Iparralderako. Lurraldeei dagokienez, hamarretik bederatzia Hegoaldean bizi dira (2.814.099), eta bat Iparraldean (293.822). Lurralde-banaketa hau da: populazio osoaren %37,1 Bizkaian bizi da; %22,7 Gipuzkoan; %20,5 Nafarroa Garaian eta %10 inguru Araban eta Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan.

Pertsona atzerritarren tasarik handiena Nafarroa Garaiak dauka (%11,2) eta txikiena Iparraldeak (%4,3). Euskal Herri osoaren batez bestekoa %7,2koa da. Lurraldeen arabera aztertuta, bertakoen, atzerritarren eta populazio osoaren ehunekoei dagokienez, Araba eta, neurri txikiagoan, Gipuzkoa dira osaera orekatuena dutenak. Bizkaian, Euskal Herriko populazio osoaren %37,9 bizi da, baina baita atzerritarren %31 ere. Egoera bestelakoa da Nafarroa Garaian; izan ere, populazioaren %20 bizi da bertan, baina baita atzerritarren ia %32 ere. Iparraldean, %9,4 eta %5,5 bizi dira, hurrenez hurren.

Azterlan horren arabera, gainera, Euskal Herrian dauden atzerritarren kopuru eta ehuneko adierazgarrienak Nafarroa Garaiko hiru eskualdetan (Tutera, %13,6; Erribera Garaia, %12,1; eta Iruñerria, %10,1) eta Arabako Lautadan (%9) daude. Ehunekorik handiena, hala ere, Hendaiaiko kantonamendukoa da, %17,5, baina hor kontaketa errealaren arazo bat dago; izan ere, badaude hor bizi diren Hegoaldeko pertsona ugari.

Ia erdia Amerikatik

Hegoaldean, atzerritarren %31,6 Europatik dator, %21,8 Afrikatik, %42,1 Amerikatik eta %4,4 Asiatik. Bizkaian, latinoamerikar etorkinen presentzia argi eta garbi gailentzen zaie gainerakoei; Gipuzkoan, europarrak dira nagusi eta afrikarren kopurua txikiagoa da; Araban, gehiago dira Magrebetik etorriak; eta

Gaindegia Txostena 2010

Bere jatorri eta helburuei jarraiki, Gaindegia Euskal Behatoki Sozioekonomikoak urteko analisia plazaratu du, kasu honetan *Gaindegia Txostena 2010*. Sortu zenetik laugarrena da. Lehenak bezalaxe, Euskal Herri osoko errealitate sozioekonomikora hurbildu nahi du. "Konfiantza-kontua... ala mesfidantza-kontua agian" Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiaren hitzaurrearekin, 2010eko Txostenak baditu berrikuntza batzuk: adierazle sorta zabala eta atal monografikoa; halaber, Eztabaida Foroa izeneko atal berria.

Txosteneko sinatzaileek zehaztasun eta aniztasun ideologikoa bermatzen dute: Marta Luxan-Unai Martin, Joseba Barandiaran, Nekane Altzelai, Nekane Jurado, Estitxu Elduayen, Catalina Chamorro, Peio Olhagaray, Sagrario Zabaleta, Xabier Aierdi, Mikel de La Fuente, Asier Minando eta Itziar Navarro, Mertxe Larrañaga, Mikel Zurbano...

Adierazle Sorta kapituluari, populazio eta lurraldeari, eta ekonomia eta gizarteari buruzko azterlanak eskaintzen dira, Euskal Herriko zahartzaroren erretratuaren ekarpen interesgarri batekin. Monografikoen kapituluari hainbat analisi datoz, gai hauei buruz: lan-merkatua, egoeraren araberrako adierazleak, I+G, enpresa-demografia, Iparraldearen erretratua, Europar Batasuneko eskualde-adierazleak, immigrazio eta prestakuntza. Aipagarria da Euskal Herriko eta Finlandiako datuen arteko alderaketa, eta baita gure enpresen nazioartekotze-prozesua ere.

Nafarroa Garaian europarren presentzia handiagoa da, eta latinoamerikar gutxiago dago. Azterlanak, tamalez, ezin izan du Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako egoera zehaztu, datu estatistikorik ezean. Nolanahi ere, Akitaniako -gune horrek Ipar Euskal Herria hartzen du bere baitan- banaketa-datu orokorren txosten baten arabera, atzerritarren %60 europarra da, gehienak EB-15ekoak; %30 Afrikatik etorri da, eta %7 Asiatik.

Euskararen eta immigrazioaren geografia

Xabier Aierdiren lanak etorkinen integrazio kultural eta politikoaren arazoak aztertzen ditu. Ildo horretatik, kultur integratzaile arazo kritiko bat dagoela iradokitzen du. Hori horrela, euskararen eta euskal kulturaren geografiak eta immigrazioarenak paraleloak direla adierazten du. Dioenez, hainbat eragilek

adierazi du lan-arlo jakin batzuetan -zaintza eta zerbitzuak- latinoamerikar etorkinen presentzia kaltegarria dela euskararentzat. Gaineratzen du hemen arazo saihestezina agertzen dela, hala ere; izan ere, jatorri horretako pertsonak dira gure gizartearen zaintza-eskaerak hobekien egokitzen direnak, lurraldean mintzatzen diren bi hizkuntzetako bat menderatzen dutelako. Ondorioztatzen du, gainera, ez dagoela nazionalitate, gure kultur beharrezan dagokienez, lehenetsi dezakegunik. Integrazio politikoari dagokionez, Aierdik dio ez dela etorkinen arazoa, gizarte osoari dagokiona baizik. ■

Euskal kulturaren eta euskararen geografiak eta immigrazioarenak paraleloak direla dio
Xabier Aierdi
soziologoaren azterlanak

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egundun
etorri gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solzabalautoeskolak.es

Bea Sallaberry

«Baionan posible da bizitzea euskararekin kontakturik izan gabe»

Nafarroa Behereko Donamartirin jaioa da Sallaberry, nahiz eta urteak diren Baionan bizi dela. AEK-ko irakaslea da. Euskaraz bizi nahiak pozak eta frustrazioak eragiten dizkio. *Han eta hemen bloga terapia gisa darabil, baita antzeko sentsazioak bizi dituenarekin bizipenak partekatzeko ere.*

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Gaizka Iroz

DUELA 6-8 HILABETE bloga ireki zuenean apustua egin zuen lagunekin. Bea Sallaberry seguru zen sei hilabetetan topatuko zituela hamar egoera non epaitu edo kritikatu duten euskaldun gisa aritzeagatik. Sei-zazpi kontakizun egitera fite ailegatu da eta gogoan dituen batzuk idatzi gabe ditu oraino.

Egoera pozgarriak ere kontatu dituzu blogean. Ahozko azterketan, epaile zinela, "Mozarten edozein aire baino finagoa" entzuteko parada izan zenuen.

Posible da norbaitek hain ongi hitz egitea euskaraz? Gaur egunean ez da politikoki zuzena euskararen kalitateaz hitz egitea, garrantzi handiagoa ematen zaio euskaldun kopuruari, euskara erabiltzeari, baina batzuetan entzuten dituzu jendeak euskaraz eta pentsatzen duzu, "zertan ari gara?". Ados, euskaraz ari da, baina masakratzen du. Badira euskaltegitik edo ikastolatik pasatu ez direnak, euskara etxean jaso dutenak, eta gutxitan entzuten den kalitate maila dutenak.

Azterketako ikasle fina horren adibide da, ezta?

Bai. Bestelako jendea etortzen da normalean. Erakustaldi bat egitera bezala datoz, uste dute erranaldi luze eta konplexuak eginez, subjun-



"Etengabe lotu behar dugu jendeak ikasitakoa egin ahal duen erabilerarekin".

tiboa sartuz, hitz egin behar dutela. Hizkuntza bitxia sortzen dute, zuzena izan daiteke, baina ez da naturala. Azterketako hark orduak hitz eginen luke, hizkuntzari begiratu beharrik gabe.

Iritzi prefabrikatuak dituen jende kategoriaz aritu zara blogean.

Badira euskaltzaleak, badira euskaltzaleak ez diren euskaldunak, eta badira euskarari buruzko iritzia aldatuko ez dutenak, euskara zaharra dela uste dutenak, ez duela balio,

gaur egun haur bati euskaraz egitea ez dela egokia uste dutenak. Jende horiek ez dute lotsarik zuri holako gauzak aurpegiratzeko.

Egoskorrak ala ezjakinak?

Beharbada denak ez dira euskararen traumatikoak (etxean euskara jaso ez dutenak), baina erraten dizute ez dela egokia euskaraz egitea edo konplikatua dela... Eta gu hasten gara argumentatzen luze eta zabal, onurak, elebitasuna... Anitzetan deusetarako ez, zeren eta pasatzen

dugu denbora eta holako jendeak ez du iritziz aldatzen. Jendea etortzen bazaizu galderekin, kuriositate pixka batekin, ongi da, baina batzuetan behar da jendea inarrosi.

Pastelerian gazte baionesak espainolez ari zinela uste izan zuen. Euskaraz ari zinen.

Anitzetan gertatzen da. Hiriguneetan, erdialdean gutxiago, baina Baiona batean posible da bizitzea euskararekin sekula kontakturik izan gabe. Euskararen presentzia karrikan biziki txikia da. Noiz ikusten du euskara baionesak? Ez bada honat etortzen dela bazkaltzera [Kalostropean gaude, AEKren egoitzako tabernan].

Arnasguneen garrantzia aipatu duzu.

Ikaslearen kasuan zailena ikasteko motibazioa izatea da. Baina gero, non erabiltzeko? Arnasguneak badira, guk badakigu non diren, baina ikasten hasi den pertsona arruntak 6-7 urte behar ditu gutxienik oinarrizko maila lortzeko, eta gainera panorama guztia frantsesez dauka.

Ni super berezia naiz Iparraldean. Nire biziaren %80 euskaraz egiten dut, nire familia, lagunak, bizilagunak, lankideak... Guztiak euskaldunak dira. Baina euskaldun arruntak zenbat egiten du euskaraz? Aukerarik ez du. Badakizu badirela gune batzuk non euskaraz egin ahaliko duzun, baina zure eguneroko bizian lagun guztiak frantses hiztun elebakarrak badira?

Arnasguneak, eta euskarak izan behar duen balio erantsia.

Irakasleok, euskara irakasten dugunean, etengabe lotu behar dugu jendeak ikasitakoa egin ahal duen erabilerarekin. Bultzatu behar dugu jende horiek zubiak egin ditzaten euskara nonbait erabiltzeko; izaten ahal da ekitaldi batzuen antolaketa, leku batzuk, beste jende bat ezagutzea,

sareetan lotzea jendea... baina euskarari ematea funtzio bat: nik ikasi dut eta erabiliko dut ekimen honetan, honetan eta honetan. Bestela, nire lankide batek erraten du badirela "arinaiztarrak". Euskara ikasten ari zara, baina ikasketek iraun dezakete hogeit urte, ez baldin baduzu momentu batez salto hori ematen. Arinaiztarrek behar dute euskara baliagarri izatea, kultura, zentzu zabalean.

Hizkuntza eta kultura bereizita erabiltzen direla diozu.

Gaurko egunean kultura ondare bezala ulertzen dugu anitzetan, eta kulturaren definizioa berez ez da hori. Bestelako jakintza guztia ere euskaraz tratatu behar da. Hizkuntza transmisioa, familia transmisioarekin, eskola transmisioarekin edo

"Erraten dizute ez dela egokia euskaraz egitea edo konplikatua dela... Eta gu hasten gara argumentatzen luze eta zabal. Anitzetan deusetarako ez. Batzuetan behar da jendea inarrosi"

AEKrekin lotzen da. Hizkuntzak balio du baldin eta erabilera esparrua baldin badu, nonbait kulturarekin loturaren bat baldin badu. Euskara eta kultura ez dira bereizi behar eta ahalik eta uztarketa handiena behar da, bestenaz biak galduko dira.



"Azken urteetan administrazioan ibili naiz klaseak ematen eta harritu naiz zenbat euskaldun den".

Dezepzioak eta frustrazioak agertu dituzu blogean, Iparraldean euskarak duen larrialdi egoera ez duzu ezkutu. Alta, baikor ere bazara.

Iparraldean kalean gurutzatzen ditugu jendeak eta ez dakigu euskaldunak direla. Hainbestearino barneratu dugu seguru asko ez dela euskalduna, non frantsesez hasten garen. Hor bada alimaleko lana egiteko, euskalgintza horretan ari da. Bestenaz, zure militantzaren esku gelditzen da beti. Sartzan zara herriko etxeko bulegoetan eta segur aski langileetako bat euskalduna izango da, baina hori jakitera iristeak galdeginen dizu indar bat egitea. Euskaraz egitea beti zerbait gehiago da, ez da zerbait arrunta.

Azken urteetan administrazioan ibili naiz klaseak ematen eta harritu naiz zenbat euskaldun den. ■

<http://hanetahemen.blogspot.com>
blogean aurkituko dituzu Bea Sallaberryren hausnarketak eta kontakizunak.

Babeslea: IVAP

"IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elebiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-erlako euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legeari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza."



Gazte topaketa Gasteizen

GASTEIZKO UDALAK, Euskara Planak eta Gazte Planak, elkarrekin antolatu dute uztailaren 19tik 22ra gazte topaketa. Hizkuntza gutxituetan hitz egiten duten ehun bat gazte biltzea da asmoa. Euskal Herriko, Kataluniako eta Galiziako 18 eta 25 urte artekoak bilduko dira, eta baita Europakoak ere. Topaketak Gasteizko EHuko Letren Fakultatean egingo dira eta hiru zati izango dituzte. Bata, akademikoa (mahai-inguruak eta hitzaldiak); bestea, gazteek parte hartzekoa (lantaldeak eta lante-

giak); eta hirugarrena, ludikoa (Gasteiz ezagutzeko bisitak, konzertuak...). Hizlarien artean izango dira ondokoak: Carmen Junyent, Sechu Sendek, Asisko Urmeneta, Gorka Julio eta Joan Sole Camardons. Besteak beste, hizkuntza ekologiaz, sare sozialez eta aurreiritziez arituko dira. Topaketen helburua hizkuntza gutxituetan hitz egiten duten gazteek elkar ezagutzea da.

Rikardo Arregi saria Goienarentzat

RIKARDO ARREGI Kazetaritza Sari nagusia Goiena Komunikazio taldeak jaso du. Epaimahaikideek ere-

dugarritzat jo dute hainbat euskarri sarean modu integralean antolatze-ko egindako lana. Sari berezia, *Berriako* kazetari Ainhoa Oiartzabalek eskuratu du, *Nork hil zuen Begoña Urroz?* erreportajeagatik. Kazetari berria ataleko saria, *Gaztezulo* hilabetekarian egindako hainbat lanengatik jaso du Igone Fernandez Mariezkurrenak. Aitormen berezia, izan du *Erlea* literatura aldizkariak eta Ohorezko aipamena jaso dute *Zeruko Argian* 1969-1975 urteetan zuzendari aritutako Miren Jone Azurzak eta euskal irratigintzan aritutako Ignazio Arregik.

Arratiako haur kantak diskoan

UMEEN ZENTZUNE etxean entzune du izena diskoak. 21 ume kanta biltzen ditu, Bizkaiko eskualdean eda- detuenek kantatzen zituzten edo oraindik kantatzen dituzten abes- tiak. Galtzear direnez, bilketa lana egin da Geure Berbategie proiektuaren baitan eta Arratiako eskole- tako ama-aitak kantuan jarri dituzte. Grabatutako abestiak eskola umeen artean banatuko dira eta haur jaio- berrien gurasoek ere jasoko dute diskoa.

BAHEA

Kazetariak Nila Vigil hizkuntzala- riari esandakoak gogoan, Vigilek berak egindako hausnarketa (<http://nilavigil.wordpress.com/>): “Hizkuntza bat desagertuko zelako kezkatzeak esan nahi zuen perspek- tiva historikorik ez zeneukala, eta idealismotzat edo dogmatismotzat jotzen zen, norberak sinestea gazte- lania hiztunak bere hizkuntza hitz egiteko duen eskubide bera duela taushiro hiztunak. Kazetaria ez zen konturatu hizkuntza gutxituetako hiztunen eskubideak urratzea defendatzen ari zela eta onartzen zuen berak bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea zuela, baina taushiro hiztunek ez”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Euskal Herriko Kutxari uko egitea

Hiru aurrezki kutxetako administrazio kontseiluek (BBK, Kutxa eta Vital), banku berri baten alde egin zuten: Kutxa Bank. Beren batzarrek irailean eman beharko diote oniritzia. Nafarroako CANek bide horixe jorratu zuen eta Banca Cívica sortu zuen Burgoseko eta Kanariar Uharteetako kutxe- kin. Erabaki biek, EAEko kutxek eta Nafarroakoak, Euskal Herriko kutxa bakar bat izateari uko egin diote. Erabaki horiek, Hego Euskal Herriko gizartearen eta ekonomiaren interes orokorrei begira baino, finantza kapitalaren interes partikularrei begira hartutakoak dira. Horrela, aurrez- ki kutxak desagiten dira, gizarte ekintza disolbatu egiten da, eta tartean akzionistak sartu direnez, gure herritik harago dauden interesen esku uzten dira erakunde horiek. Banku berriak –uztailaren 20an burtsara ate- rako den Banca Cívica eta Kutxa Bank– Euskal Herriaren interesetik oso urrun dagoen inbertitzaile baten esku egon daitezke egunen batean.

Euskal kutxen bankarizazioaren ondorioak langileek jasango dituzte bereziki, baita enpresa txiki eta ertainek eta gizarte ekintzak ere. Langileei dagokienez, lanpostu ugari deuseztatuko da eta lan baldintzak aldatuko dira, malgutasuna eta mugikortasuna dela-eta. Euren lan hitzarmenak eus- kal eremutik kanpo negoziatu ahal izango dira. Enpresa txiki eta ertainek kredituak jasotzeko zailtasun handiagoak izango dituzte eta euskal produk- zio-ehunak jasango du hori. Gizarte ekintza, aldiz, disolbatu egingo da.

Euskal Herriarentzako kutxa bakarra sortzea posible da, eta errenta- garria ere bai. Kontrol publiko zorrotza izanez gero, garapen ekonomiko eta sozial hobea bermatuko litzateke, baita gizarte ekintza edukitzea ere, eta Euskal Herria hezurmamitzen joango litzateke. EAJk, PSOEek, PPK eta Eusko Jaurlaritzak –non egungo ordezkariak politikoa ez den erreala- bankarizazioaren alde egin dute, Euskal Herriko Kutxari uko eginez. Beraiek dira arduradun.

Juan Mari Arregi

Hasi da barne eztabaidaren kontaketa

BATERAGUNE auzia ere bere barne lehian erabiltzea erabaki du gaur egun ezker abertzalean nagusitasuna duen sektoreak, egunotan Auzitegi Nazionalen epaitua izan den horrek hain zuzen. Otegi inoiz baino argiago eta ozenago aldarrikatu du sektore horren eta ETaren artean dagoen leizea. Otegiaren ahotik ikasi du iritziz publikoak Bateragune Ekineko egitura bat zela. Ekinek eta ETak posible ikusten zutela metaketa soberanista eta jardun armatua bateratzea; Otegi, Rafa Diez eta Rufi Etxeberriaren taldeak ez.

Bi sektore horiek badituzte hainbat desberdintasun giltzarri diren gaitan, borroka armatua, lurralde egituraketa edota indar metaketa soberanista esate baterako. Eta horien artean esanguratsuena borroka armatuarena da, HB eta ETaren baitan azken 30 urteotan arazo ugari ekarri duena. ENAMen etengabekoa izanda borroka armatuarekiko eztabaida, eta horren ondorioz baztertuak edo aldentuak ere ugariak izan dira. 90eko hamarkadaren hasieran, adibidez, Iñaki Esnaola HBko zuzendaritzatik egotzia izan zen gisa bereko barne lehia batean. Eta Lizarra-Garaziko porrotaren ondoren, borroka armatuaren aurkako jarrera izan zen Patxi Zabaletak gidatutako Aralarren katalizatzaile nagusi.

Borroka moldeen tira-bira horretan beti irabazi izan du lerro ofizialak, hau da, unean uneko zuzendaritzak, baita horietan Otegi, Etxeberria edo Diez bera egon direnean ere. Hala izan da beti Loiolako porrotaren ondorengora arte. Hori izan zen ezker abertzalearen egungo eztabaidaren inflexio puntua, eta porrot haren bihotzerrean egosi zen Otegiaren sektorearen garaipen historikoa.

Urratsez urrats ehundu den garaipena da eta, antza, komeni da



Hasi da barne eztabaidaren kontaketa.

kontatzen hastea. Bateraguneko auzipetuak eta lekukoak hasi dira hainbat pasarte aletzen eta, besteak beste, joan den igandean Gara-k ere eskaini du bere ikuspuntua, Iñaki Altunak sinatutako artikulua medio.

2009an ezker abertzalearen barne eztabaida eman zenetik gaurdaino, debatea irabazi duen sektoreak etengabe taularatu du bere indarra: jende erreferentzialarekin egindako prentsurreko jendetsuak, gertuko hedabideen sostengua, Gernikako Ituna, Brian Currinen nazioarteko taldea, Sortu, EA eta Alternatibarekiko akordioak... eta, azkenik, Bildu eta maiatzaren 22ko indar agerpena.

Bistan da nor den garaile eta zertara behartu duen ETA. Baina nola daude une honetan ezker abertzalearen barruko indar harremanak? Argi dago Bateraguneko auzipetuentzat juridikoki giltzarri dela beraiek zertan aritu diren azaltzea. Hari nagusia ezaguna zen, baina xehetasunak oso lagungarri

dira fiskaltzaren akusazioak hankaz gora jarri eta epaiketaren emaitza ondorio posible bakarrera eramateko: absolutziora.

Oraingoz bederen, argi dago ETak ezker abertzalearen gehiengoak erabakitakoari men egitea erabaki duela. Su-etenean jarraitzea eta *zerga iraultzailea*-ren etena oso adierazgarriak dira, azken hau erabakigarria akaso. Kale borrokaren desagerpena ere esanguratsua da oso. Orduan, zertan geratu dira sektore galtzaileak? Zatiketaren arriskua erabat saihestu ote da? Eta bi hipotesi bederen luza daitezke: bat, dena bideratua dago, ez dago zatiketa arriskurik eta, beraz, hasi daiteke gertatutakoaren kontaketa egiten eta historia finkatzen; bi, oraindik bada lehia maila bat eta, beraz, arrisku bat, eta epaiketa hau ere lehia horretarako beste tresna bat da. Logikak eta gertaeren analisiak lehen hipotesia indartzen dute, baina epaiketaren emaitzak eta ondorenak ere emango dituzte argibide gehiago.

PELLO ZUBIRIA

Uranio pobretuak hondatutako Falujako haurrak

2004an bi alditan eraso zuen Irakeko Faluja AEBetako armadak, otsailean lehenbizi, azaroan oster. Hiria suntsitu zuten, Saddam Hussein militarrek eta gerrillari sunitak babesten zituelakoan. Gaur han sortzen diren haurretako asko malformazio beldurgarriekin dator mundura. Berdin Basran eta Naiafen. Iskilu modernoek kalteak.

KARLOS ZURUTUZAK IRAKETIK ARGIA honetan bertan ezagutarazi zituen, otsailean, Basra hiriko ospitalean aurkitu zituen Nassar-en eta honen seme Mohamed minbiziz gaitxotuaeren egoera, aitaren hitzok: “Hala ere, hemen denok dakigu izurrite hau nondik etorri den nagusiki. 91ko gerran, amerikarrek uranioa zuten bonbak bota zituzten hemen. Basora arma berriak probatzeko gunea bilakatu zen. Diotenez, euren soldadu asko ere minbiziak harrapatu zituen baina beraiek bota zituzten arma haiek, beraiek aukeratu zuten hona etortzea. Nire seme-alabek, aldiz, ez dute inoiz ezer aukeratu”.

Ekainean titulu hau eman dio *Le Monde* egunkari frantsesak gaiari: *A Fallouja, les "bébés monstres" soulèvent des questions sur les armes américaines utilisées en 2004*. Gaia bildua zuen Angélique Férate kazetariak *France Info* irratiarako eta *Paris-Match* astekarirako prestatu *L'armée américaine a-t-elle utilisé l'arme nucléaire en Irak?* erreportajetik. Londresko *The Guardian*ek, berriz, 2010eko abenduan kronika hau plazaratu zuen: “Ikerlan batek lotu ditu Falujako jaiotzetiko malformazioak eta kantzerak AEBen erasoekin”. 2009an kronika luzeak eskaini zizkion *The Guardian*ek gaiari. Madrilgo *El Pais*ekin loturak dituzten bi egunkariok ez

dute sentsazionalismorik egin ohi militarren aferekin.

Akordatzeko Falujaz? Saddam Hussein agintetik kentzera Iraken sartu eta urtebetera erasotu zuen lehenbizikoz AEBetako armadak, 2004ko apirilean. *Vigilant Resolve* operazioa sutu zuten erresistentziak hil zituelako militarrek azpikontratutako Blackwater-eko lau mertzenario.

Baina atake gogorra azaroan egin zuten soldadu yankiek, *Phantom Fury* deitu operazioarekin. AEBetako armadaburuek aitortu zuten gudu hura izan zela “1968an Vietnamgo Hue hirian izandakotik bortitzena”. Hilak? 2.000, diote amerikarrek, eta gehienak matxino armatuak. 6.000z goiti eta gehienak zibilak, diote Irakeko mediku eta Gobernu Kanpoko Erakundeek. Falujak zeuzkan 50.000 eraikinetatik 36.000 suntsitu zituzten, 60 eskola, 65 mezkita. 200.000 herritar bihurtu zen errefuxiatu.

Karlos Zurutuzak Faluja parekatu du Gernikarekin. Zientzialari batzuei Hiroshima oroitarazten die, gerra bukatu eta askoz beranduago ere haur jaioberrietan eragin zituen ondorioengatik.

Angélique Fératek *Paris-Match*-ko *Falloujah: L'autre guerre* erreportajea ilustratzeko erabili argazkia ikaragarria da; Internetez ikusi nahi duenak aurrez arnasa sakon hartu

AEBetako Michigan estatuan inprimatzen den *The Arab American News* astekariaren orria bildu du ondoko irudiak. Urtarriaren 8-14ko zenbakiak titulu hau dakar: “Ann Arbor ospitaleko toxikologoaren ikerketak lotu ditu Falujako jaioberrien akatsak eta AEBen armak”. Ezkerreko argazkiko umeak buruan dauka malformazio nabarmena eta eskubikoak zangoetan, ziurrenik nerbioen hodiaren itxia txarrak eraginda. Joan den martxoan Karlos Zurutuzak ARGIAko *Iraketik* blogean “Gernika gogoan” sarrera dedikatu zion Falujari. Zurutuzak oroitarazi du amerikarrek hango erasoetan napalma erabili zutela eta fosforo zuria ere bai; hau bera izan liteke kantzer ugalketaren kausa. “2011n ere, Falujako kaleak sarraski haren lekuko mutuak dira. Zortzi urte igaro arren, falujarrak, irakiarrek, errautsetan bizi dira oraindik”, dio Zurutuzak.

beza. Samira Al-Ani doktoreak aurkeztu dion urte beteko haurraren aurpegia epelenari loa kentzekoa da.

“Argazkiak –idatzi du Fératek– ikaragarriak dira: hemen sabel hustuarekin jaio den haur bat, haren barrunbeak oro zorro batean dira kanpoko aldean! Beste bat larruazalik gabe sortu da, bestea buruhezurrik gabe, burmuina agerian. Bizirik dirautenek malformazioak dituzte bihotzean, nerbio sistema osatu gabea, edo aurpegi desitxuratua. Samira oroitu da Alaa txikiak, zeinak ez baitzuen begi bat baizik bekokian!”

Blindajeak zultzeko

2008an *Sky News* telebista britainiarrek zabaldu zuen Falujan sortzen ziren haurren artean malformazio kopuruak beldurtzekoak zirela. 2009an *The Guardian*ek irakurleei jakinarazi zien hango ospitale nagusian hiru astetan 37 ume sortu zirela malformazioekin.

Hango ospitaleko doktoreek datu estatistiko hau eman zioten kazetariari: urte batetik bestera 15 aldiz biderkatu zirela haur jaioberrien malformazioak. Kasurik deigarriena bi buruz jaiotako haurrarena izan zen. 2010ean goraka segitu zuen estatistikak. Maiatzean Falujako ospitale nagusian sortutako 547 haurretatik %15ek malformazioak zekartzaten, hala nola nerbio hodi

16 JANUARY 8-14, 2011

The Arab American News

VOL. 27 Issue # 13

IRAQ WAR AFTERMATH

New study from Ann Arbor toxicologist links Fallujah birth defects to U.S. weapons

By Nick Meyer
The Arab American News

A new study has shed light on the massive surge in post-war birth defects in Fallujah, Iraq, showing for the first time that an epidemic of reproductive abnormalities has likely been caused by the presence of metals in the environment, potentially from the residues of munitions used by American armed forces on the city in 2004.

A team of four researchers: environmental toxicologist Mozghan Savabieasfahani of Ann Arbor, Samira Alaani of Fallujah General Hospital, Mohammad Tafash of Al-Anbar University in Fallujah, and geneticist Paola Manduca of the University of Genoa in Italy, conducted the study, which has drawn international attention from outlets such as the British Broadcasting Corporation (BBC), Al Jazeera, and The Guardian newspaper of London.



A total of 547 births in Fallujah General Hospital showed that 15% of babies born in May had massive birth defects, many of them life-threatening, compared to the world average of 2-3%, according to the study. The rates rose sharply in the first half of 2010 and are likely to continue rising.

itxi gabea –burmuinean bezala zangoetan eragin kaltegarriak dituenen, anormalitateak bihotzean edo hezurduran, kantzerrak...

Kazetariak Zainab Abdul Latif ezagutu zuen, 29 urteko ama gaztea. Haren hiru haurretatik, ez 6 urteko Mariam, ez 5eko Amar eta ez 3ko Mustafa ez dira oinez ibiltzeko gai. Ezin dute ez jan ez edan laguntzarik gabe. Medikuek esan diote atzeratuak direla eta nerbio sisteman paralisia dutela.

“2003a baino lehen –esan zuen ospitaleko zuzendari Ayman Qaisek– itxuragabetasunok oso bakan suertatzen ziren. Orain izugarri ugartu dira”. Irakeko nahiz Britainia Handiko mediku batzuek Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiari eskatu zioten ikerketa batzorde berezia eta independentea antolatzeko, gerraren kalteak aztertu eta barreiatutako gai toxikoak garbitzen laguntzeko.

Christopher Busby, Green Audit kontsultoriako kidea eta maila apaleko erradiazioen eraginetan berezitua, seguru dago amerikarrek hiriarren bonbaketan erabilitako armetan dartzala gakoa. Legeak debekatutako fosforo zuriaz gain, AEBen artilleriak usatu zituen uranio pobretuz aberastutako –horrela eleztatzen dira militarrek– munizioak. Busbyk Malak Hamdan eta Entesar Ariabirekin burututako ikerketa 2010ean *International Journal of Environmental research and Public Health* aldizkariak plazaratu zuen, erakutsiz 2006-

2009 epean Falujan %80 handitu zela mortalitatea; kontrastez, Egipton %19,8 eta Jordanian %17 igo zen. 2010eko abenduan Mozghan Savabieasfahani eta beste aditu batzuek aldizkari zientifiko berean ikerketa berria plazaratu zuten, zeinetan azaltzen zuten Falujan munduratzan den haur batek munduko beste edozein parajetan sortzen den edonork baino 11 aldiz arrisku handiagoa duela malformazioz jaiozteko. Hauek zabaldu zuten 2010eko maiatzeko datua: sortutako 547 umeetatik %15ek malformazioak zekartzaten, eta beste %11 garaia baino lehen jaio ziren. Ikerketa hau izan da arma amerikanoen uranioa aipatu duen lehenbizikoa.

Laster *The Lancet* aldizkari famatua argitaratzekotan da Christopher Busbyren ikerlan berri bat, zalaparta handia eragin beharko lukeena: Busbyk dio Falujako lurzoruan, jendeen ileetan, airean eta uretan aurkitu dituela ez plutonio pobretuaren baizik eta plutonio aberastuaren arrastoak. *Le Monde*ko erredakzioan gai militarretan aditua den Jean-Dominique Merchet-i galdetuta, honek dio zentzurik ez lukeela uranio mota hau, oso erradiaktiboa dena, erabiltzea potentzia batek non eta bere soldaduak ere tartean diren lekuan. Ikusi beharko da.

Aldiz, uranio pobretua usatu dela ez du inork eztabaidatzen. AEBetako gobernuak dio inon ez dela demostratu gizakiari kalte egiten diotik. Uranioa oso metal astuna izanik, ahalmen berezia dauka eraikinetan bezala tankeetan ipinitako blindajeak zultzeko. Antza denez, gizakiaren geneak ere zultzen ditu. ■

zuri begira





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Aingeru Epaltza

Beti UPNetan

UPN berriz ere. PSN ohekide, gainera. Gorpil zaharrak jiraka segituko du lau urte gehiago. Gogo txarra ematen du pentsatze hutsak. Gaitz erdi litzateke horien ondoan argia ikusteko perspektibarik batere bagenu.

Nafar abertzale gehienek mende laurdena egin zuten balizko negoziazioaren ustezko etekinen espero antzuan. Noizbait jabetu ziren, zerua lortzerik ez bazen, bederen infernutik ateratzeko urratsak ematen hasteko komenientziaz. UPN gobernunik kanporatzea lehenetsi dute 2000ko hamarkadaren erdialdetik hona. Hiru zutarri zituen xede horrek: euskaltzaileen elkartzea, sektore berrietara ailegatztea, PSNrekiko konplizitatea. Guztiek bat ez egitea ez zen traba. Ezker abertzale lege kanporatua kanpoan egoteak zelaituko zituen bideak bai boto berriak erdiesteko bai sozialistak gobernu alternatibo batera erakartzeko.

Estrategia hori gauzatzeko sortu zen Nafarroa Bai. Indar euskaltzale batek Foru Komunitatean inoiz izan duen sostengurik handiena erdietsi zuen 2007an. Nafarroako lehen indar abertzale gelditu da 2011n. Helburuetan, berriz, porrot egin du. Ez zuen Miguel Sanzen hirugarren legegintzaldia galarazi ahal izan. Ezin izan du Yolanda Barcinaren lehena eragotzi.

Nafarroa Bairei barne tirabirek higatu diote zola. Bildu atera zaio, plaza berean jokatzen duen kontrario gogorra. Hain plaza berean non EAEko indar soberanistak paktista eta transbertsal jokatu baitu, Lizarrustitik hona, hauteskunde ondotik. PSNk, halere, ez du amua irentsi. Zein dira Nafarroan sozialisten eta abertzaleen arteko akordioa posible egingen luketen baldintzak? Erranak dira ETAr eta haren arrastorari dagozkionak. Bada bertze bat, aipatze hutsak tripako mina eragiten duena: Gasteizera on izatea Iruñerako on dena. Nekez



DANI BLANCO

izanen da traturik PSNren eta abertzaleen artean, abertzaleen eta PSEren artean ez bada.

Ez gaude horretan. Ez alde batean, ez bertzean. Madrilgo nahiz EAEko interferentziek zimendu sendoa ezarri diote Yolanda Barcinaren eta Roberto Jimenezaren arteko ezkontzari. Bertze fase batean gaude maiatzaz geroztik. Hartan, lehen hilotza dugu sozialistekin gobernu aurrerakoi bat noizbait osatzeko ideia. Ez dago hain garbi, alabaina, ordezkio estrategiaren ardatza.

Erran berri dut: politika espainiarrak PSNren jokamoldea nola, halaxe baldintzapetzen du gure mendebaldekoak Foru Komunitateko eremu abertzalea. Aralar –Nafarroa Baiko alderdi nagusia– ukiturik utzi dute hango emaitza kaskarrekin. Bildurekin bat egin ala ez, eztabaida mahai gainean du Patxi Zabaletaren alderdiak. Zer erabakitzen duen, halakoa izanen da NaBairen etorkizuna.

Maiatzeko boto erauntsiak haize eman dio ezkerreko fronte soberanistaren ametsari. Jadaneke bada Bildu Euskal Herriko lehen indar egin da ikusten duenik. Hala dateke EAEn. Nafarroan urrun gaude halakotik. Belau-naldi-aldaketa etorri omen da.

Hemen, Mendialdean baizik ez da detektatu, non eta euskal irakaskuntza orokortua dagoen tokietan. Ez dezala UPNk jakin.

ETAr gabe ere, fronte soberanista batek, bere bakarrean, ez gaitu infernutik aterako, nekez erakarriko baititu abertzale-tasunetik urrun daudenak. Nafarroa Baik bere apurñoa egin du alde horretatik. Agian izanen dugu lanari jarraipena nork emana.

Segi dezatela suharrenek independentziaren zeruaz amesten. Bitartean, norbait ibili beharko da gu infernutik ateratzeko bide berriak asmatzen. Latza litzateke gure seme-alabek ere gure kantan segitu behar izatea: “Beti UPNetan, beti UPNetan bizi naiz mundu hunetan...”. ■



Segi dezatela suharrenek

independentziaren zeruaz amesten.

Bitartean, norbait ibili beharko da gu infernutik ateratzeko bide berriak asmatzen.

Latza litzateke gure seme-alabek ere gure

kantan segitu behar izatea:


‘Beti UPNetan, beti UPNetan

bizi naiz mundu hunetan...’



ASTE HONETAKO

zozketa



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Zain XXI. mendeko piratak

3 harpidedunentzat
CD bana

www.baga-biga.com

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2282. Argia)

IBERNALO LANDETxea

• Jokin Ginea Kortajarena (Galdakao)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA bazkaria

• Imanol Irigoien Aranberri (Oizartzun)

DONOSTIAKO AQUARIUMA sarrera

• Manu Urruzola Aranzabe (Alkiza)
• Orkatz Kultur Elkartea (Azpeitia)
• Kepa Gorordo Basaras (Durango)
• Xalba Elortza (Westhalten)
• Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruñea)

ARTIUM sarrera

• Igor Piñeiro Zabala (Getxo)
• Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)

MUNDUKO IPUINAK

• Urumea Euskaltegia (Donostia)
• Uxune Iriondo Urbiztazu (Getxo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

beranduegi

ARGIAren albistegia interneten

24. saioa
Aste
honetan...



► Pertsonaia: Daniel Landart

Donostiriko (Nafarroa Beherea) idazlea da. Antzerki idazle gisa egin da ezagun. 1965 eta 1985 bitartean euskal antzerkiaren animatzaile handienetakoa izan zen. Antzerkilarien Biltzarra eta Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrearen sorreran hartu zuen parte. Antzerkiez gain, olerkiak ere idazten ditu. Hainbat kantarik eta taldek musika jarri izan diete bere testuei.



► Bloga: Greziar Paradoxa (Urko Apaolaza)

Bi eguneko greba orokor batek geldituta eta Syntagma plazan gertaturiko istilu larriek aztoratuta, Atenas 2007an hasitako finantza krisiaren ondorioen ispilu da momentu honetan. Irudiek dena adierazten dute: ke-boteek bataila epiko bateko osagaiak ematen zuten, poliziek panpina mantsoak ziruditen Zeusen haserrealdiari ezin eutsirik....



► Audience - Amerikanoak

Audience gernikarren azken disko luzea dugu Amerikanoak izenekoa. Lan hau berezia da, izan ere Nacho Reig eta Gorka Bilbaok zuzenduriko Amerikanoak dokumentalaren soinu banda da.



Lehiaketa

Osatu marrazkia originaltasunez eta bidali erantzuna beranduegi@argia.com helbidera.

Saria: Donostiako Urbano jatetxean bi lagunentzako afari edo bazkaria

www.argia.com

www.beranduegi.tv